



Izarrei begira

Milaka ikasle Esteban Esteban Peñalbaren azalpeni esker ikasi dute zeruz eta izarrez. Durangoko astronomia gelako arduraduna jubilatuta egin da, baina Hezkuntza Sailak ez du bere ordezkorik ipintzeko asmorik. Beharrezana erakusteko, bere kabuz segituko du lanean. Iaz 4.500 ikasle jaso zituen. • 2-3

LEHIOR ELORRIAGA

Ttap jaio da: euskarazko astekari multimedia berria, informazioa ikusi, entzun, ukitu eta irakurtzeko

Durangaldea | Eneko Atxa sukaldariak Euskalduna Jauregian zuzentzen duen 'Eneko Bilbao' jatetxean aurkeztu zuten eguaztenean Ttap aldizkari berria. Mugikorretarako eta tabletetarako aplikazio bat da, euskarazkoa.

Atxa eta Maialen Chourraut piraguista dira astekariaren lehen aleko protagonistak. Izaro Andres, Irati Eguren eta beste hainbat kolaboratzaile ditu. Bideoak, audioak, testuak eta ilustrazioak eskaintzen ditu Ttapek, besteak beste. • 4



**Iurretako
jaiak
2018**

DHEO DURANGO

Hizkuntza Eskola Ofiziala / Escuela Oficial de Idiomas

Matrikula zabalik

Urriaren 4ra arte aukera duzu izena emateko. Sartu gure web orrian eta egin eskaria.

Zalantzarik baduzu, deitu eskolara.

72,36€ ikasturte osoa

www.eoidurangoeo.hezkuntza.net
94 620 33 42 - 94 681 66 45



“Badakigu Apophisek Lurragaz talka egiten badu, apirilaren 13 batean izango dela”

Jubilatuta egon arren, ikasleen eta interesdunen bisitak hartzen segituko du Estebanek, astronomia erakusteko beharrez dagoela uste duelako

DURANGALDEA • MARCEL ONAINDIA

Joaquin Rueda irakaslearen inziati-
baz, 80ko hamarkadaren hasieran
behatoki astronomiko bat eraiki zuten
Intxaurrendoko eskolan. Udalak ipini-
tako diruari esker hasi zuen bidea, eta
denboragaz hainbat materialez horni-
tzen joan zen. Durangoko ikastetxe-
tako ume eta gaztetxoak joaten ziren
bertara, eta gerora bisitarien jatorria
hedatzen joan zen. Astronomiaren
zaleekin Izarra elkarte ere jaio zen.
2007an astronomia gela bihurtu,
eta orduetik hona Esteban Esteban
Peñalba izan da bertako arduraduna.
Jubilatzeko sasoia heldu zaionean,
espero bako notizia etorri da: Eusko
Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak ez du
bere ordezkorik ipini gura. Horren au-
rrean, kobratu bako lanagaz jarraitzea
erabaki du Estebanek, arduradun ba-
ten beharrezana erakusteko helburuz.
Izan ere, iaz 4.500 bisitari jaso zituen
Durangoko astronomia gelak *-zerui-
kasgela@gmail.com* helbidean eskatu
ahal dira bisitak-. Bere aldarriak
herriko arduradun politikoen babes
ere badu; Durangoko Udalak lanpos-
tua mantentzearen aldeko mezu bat
bidali dio Jaurlaritzari gutun bidez.
EH Bilduk uztaileko osoko bilkuran
ere publiko egin zuen gaia. Denborak
esango du, Estebanek miran duen
desioa ikustarazten den ala ez.

**Txikitatik izan al duzu astronomiare-
kiko afizioa? Zelan hasi zinen lanean
Durangoko astronomia gelan?**

2007an etorri nintzen hona. Be-
rez, matematikaria naiz. Sestaoko
institutuko irakasle izan naiz urte
luzez. Astronomia zaletasuna izan
da niretzat, eta nire kabuz hasi
nintzen ikasten. Askok ikertu, gai
askotaz idatzi [www.tercerplaneta.net
bloga du], eta dagoeneko gaur egun
estatuko elkarte bateko presiden-
tea naiz, Astronomiaren Irakas-
kuntzarako Elkartekoa, hain
zuzen ere. Jaurlaritzako
zerbitzuen batzordeak
hona etortzeko egin-
kizuna eman zidan
2007an.

**Jubilatzeko sasoia heldu zaizu, baina
Hezkuntza Sailak ez du zure ordezkori-
rik ipini gura.**

Uztailetik jubilatuta nago, baina
lanean jarraitzen dut. Jubilatze-
rakoan, itxura txarra hartu nion,
Hezkuntza Sailak ez zuen nire
ordezkorik jarri gura. Gustatzen
zaidanez, jarraitzea erabaki dut; ez
lanaldi osoan, murriztuta baizik,
baina jendea hartuko dut. Arazo
bat daukagu: aurten jende askok
egin du etortzeko eskaera, inoiz
baino gehiagok. Martxora arte be-
teta dugu ordutegia. Norbait kontratatzeko
beharrezana dagoela
erakustea da nire ideia. Iazko ikas-
turtean 4.500 bisita jaso genituen.
Gehienak Bizkaitik etortzen dira,
baina baita Gipuzkoatik, Araba-
tik, Iparraldetik, Kanta-
briatik (Espainia)... ere.
Batzuk turismoa egi-
ten ere etortzen
dira.

**Zer eman dizu lan
honek?**

Gai hau zoraga-
rria da niretzat.
Normalean ez
dugu zerura be-
giratzen; hor da-
go, eta bitartean
gu hemen, gure ara-
zoak konpontzen.
Edozeinek ikusi
ahal du

astroak nola mugitzen diren. Niri
kontatzea gustatzen zait, irakasle
sena hona ekarri dut. Ume asko
etortzen dira, eta ikusten dut gaia
erakusgarria dela eurentzat. Inte-
resgarria, misteriotsua... Zelako
aurpegiak ipintzen dituzten ikus-
tea besterik ez dago, edo zelako
galderak egiten dituzten. Giro oso
polita da, eta horregatik jarraitzen
dut hemen.

**Durangoko astronomia gelak urteeta-
ko ibilbidea du. Ez da ohikoa horrelako
instalazioak herrietan topatzea.**

Behatokia orain 30 bat urte eraiki
zen, Intxaurrendoko ikastetxeko
Joaquin Rueda irakasleak bultza-
tuta eta udalak inbertituta. Euskal
Herriko lehen kupula edo behato-
kia dela esaten da.
2000. urtean

jubilatu zen Rueda, eta eskola ere
orduan desagertu zen hain justu.
Sei urteko etenaren ostean, 2007an
berriro jarri genuen martxan.

**Zuen instalazioetan, munduko lehen
erloju digitala ikusi daitekeela entzun
dut.**

Horrela da, bai. Sestaon egin nuen
nire ikaslee-
kin. Gela
honetan
sari ga-
rran-
tzi-

tsuak jasotako materialak ikusi
ahal dira. Adibidez, eguzkiaren eta
itzalen simulaziokoagaz estatuko
sari bat jaso eta gero, Herbehere-
tara eraman genuen ikustera, Euro-
pako Espazio Agentziaren zentrora.
Zelan dago antolatuta?

Hainbat gune ditugu, gaika. Eguz-
ki erlojuak, eguzkiaren kokape-
na, ilargiaren txokoa, eguzki
sistema, planetak, orbitak,
asteroideak eta kometak,
teleskopioak, satelite arti-
fizialak, eta planetarioa.
Gai bakoitzagaz, as-
tronomo baten azal-

**Esteban Esteban
Peñalba**

Durangoko astronomia
gelako arduraduna.
Bilbo | 1956

pena ere badugu. Ilargiarenean, adibidez, Aglaonike daukagu, duela 2.400 urteko emakume bat, eklipseak noiz gertatuko ziren jakiten zuena. Asteroide arriskuak zeintzuk diren interesatzen bazaizu, noiz izango den posible talka egitea eta abar, material aproposa duzu hemen. Ez dut ho-

“

"Ikusten dut gaia erakusgarria dela umeentzat. Interesgarria, misterioitsua..."

rrelakorik beste inon ezagutzen. Bertan ikusiko dugu Apophis asteroidea dela gaur egun arrisku bakarra Lurrarentzat. 2029ko apirilaren 13an oso hurbil pasatuko da; lehenago uste zuten gugaz talka egingo zuela. 2036ko apirilaren 13an hurreratuko da berriro. Badakigu talka egiten badu, milioika urte barru izanda ere, apirilaren 13 batean izango dela, Lurrak urtebete behar duelako Lurraren eta Apophisen orbitak gertuen dauden lekura heltzeko. **Suposatzen dut interes handiz jarraituko diezula ikerketa espazialei. Datozen urteetan notizia interesgarriak etorriko direla uste duzu?**

Gero eta berri gehiago datoz. Adibidez, iaz 7 planeta deskubritu zituzten, Lurraren antzeko tamainakoak. Euren eraginen ondorioz izan da aurkikuntza, ikusi barik. Hirutan, bizitza posible dela uste da. Posible da euren atmosfera nolakoa den jakitea, ikusi barik. Arrasto berezi batzuk topatuz gero, bizitzaren seinale izango dira. Nola jakin jendea dagoen ala ez? Edozein lekutan, edozein momentutan, bizitza estralurtarra topatzea espero dut.

Marten ura topatu dute.

Eguzki sisteman lau edo bost astro daude bizi aukera dagoena, baina oso txikia. Aukera handiena Europa deitzen den satelitean dago. Bizitza egoteko, ur likidoa egotea gakoa da, eta tenperaturak ere badu zerikusia. Artizarra eta Merkurio, adibidez, eguzkitik hurbil daude eta bero gehiegi egiten du.

Marte ia mugan dago, baina baldintzak ez dira betetzen. Handik aurrera, hotz handia dago. Europa satelitean, printzipioz ezinezkoa da bizitza, izoztuta baitago. Baina, kasualitatez, Jupiterren mareek satelite hori mugitzen dute, eta marruskadura dela-eta, beroa sortu eta barrutik likidoa da. Gugandik mila milioi kilometro ingurura dago.

Esango nuke gutxi erreparatzen diogula hor kanpoan dagoenari.

Orain mende batetik atzera, jendeak zeruari buruz gehiago zekiela esango nuke, batez ere beharizana zutelako. Adibidez, eguzkia leku batean agertuz gero negua zetorrela eta egurra behar zutela igartzen zuten nekazariak. Nire aitonak izarren kokapenaren bidez kalkulatzen zuen ordua. Ez zeukan erlojurik, baina goiz altxatu behar bazuen, izarren arabera jakiten zuen ordua. Gaur egun ez dugu horrelakoen beharizanik, eta gehiago da

“

"Arazo bat daukagu: aurten jende askok egin du etortzeko eskaera, inoiz baino gehiagok"

zaletasun edo ikerketa kontua. Garrantzitsua izango litzateke jendeak non gauden pentsatzea. Adibidez, gure planeta oso ahula dela eta zaindu egin behar dugula. Astroak aztertzen baditugu, askoz hobeto ulertuko dugu ideia hori. Noski, gero politikariek egin behar dute politika, baliabideak dituztelako.

Zenbat dakigu, adibidez, ilargiaz? Zer da egia eta zer mito? Egia da itsasoan baduela eragina?

Bai. Ilargiak itsas mareetan eragiten du. Lurra bueltaka dabil, eta ilargiaren grabitazio-erakarpengatik ura mugitu egiten da. Baina badaude beste kontu batzuk frogatu bakoak direnak, eta beste batzuk gezurrak. Adibidez, nekazaritzako konturik gehienak frogatu bakoak dira. Gezurrei dagokienez, esaten da ilbeteen jaiotza gehiago egoten direla, baita krimenak ere. Nik ere uste nuen jaiotza gehiago egoten zirela, baina estatistika bat egin nuen ikasleekin. Ikastetxe den jaiotze datak eta ilgoren datak gurutzatu genituen, eta gezurra zela ikusi genuen.

Ikerketetan sinesten ez duenik ere badago.

Ondorio asko ateratzen dira, gero erabiltzen ditugunak. Esaterako, umeentzako pixoihala astronautek asmatu zuten, espazioan ordu asko eman behar eta komunik ez zegoelako.



Goiko argazkietan, Estebanek jasotako zenbait bisita. Behean, udalak berari eta Ruedari (ezkerretik hirugarrena) eginiko aitortza.



ANBOTOk lan taldea aplikazioaren aurkezpenean.

Ttap: mugikorretarako euskarazko aldizkari multimedia martxan dago

Ttap astekari digitalaren lehen edizioa aurkeztu dute Eneko Atxak Euskalduna Jauregian duen jabetxean; aplikazioa mugikorretan deskargatzeko moduan dago jadanik

DURANGALDEA • MARKEL ONAINDIA

Eneko Atxak Euskalduna Jauregian zuzentzen duen *Eneko Bilbao* jabetxean eman zioten ongi etorria Ttap euskarazko astekari digitalaren lehen zenbakiari. Kataluniako Esguard hedabideagaz egindako

Asteon Eneko Atxa sukaldaria eta Maialen Chourraut piraguista dira protagonista

elkarlanetik jaio da, eta Tokikom, ANBOTO, Goiena eta Baleike dira bultzatzaile.

Deskargatzeko prest
Informazioa jasotzeko eredu berrietara egokitu gura du Ttapek.



Monika Belastegi ttap-eko zuzendaria.



Ekitaldiko parte-hartzaileak aplikazioa deskargatzen.

Irakurtzeaz aparte, ikusi, entzun eta ukitzeko aplikazio bat da, Apple Store eta Google Playn deskargatu

Izaro Andresen zutabeaz eta Irati Egurenen ilustrazioaz ere gozatu ahalko da, adibidez

daitekeena. Esaterako, elkarriketak bideoan zein audioan jaso ahal dira. Momentuz, Bizkairako eta Gipuzkoarako edizio bana edukiko du, eta, asteon, Eneko Atxa sukaldaria eta Maialen Chourraut piraguista dira protagonista. Aparte, Izaro Andresen zutabeaz eta Irati Egurenen ilustrazioaz ere gozatu ahalko da, adibidez.

Durangaldean airea neurtzeko estazio gehiago ipintzea eskatu dio Ahal Duguk Eusko Jaurlaritzari

DURANGALDEA • M.O.

Durangaldeko Ahal Dugu-Podemos eta Herriaren Eskubideko kideek airearen kalitatearen inguruan neurriak eskatu dizkiote Osasun Sailari. Udaletan mozioa aurkeztuko dute, eta Eusko Legebiltzarrean ere bai, Elkarrekin Podemoseko Jose Ramon Becerraren eskutik.

Eskualdean, Durangon eta Zornotzan baino ez daude airea neurtzeko gailuak, eta Julian Riosek adierazi du beste herrietan ere ezartzea gura dutela, "kutsaduraren irudi erreal eta eguneratu

bat izateko". Gainera, gogoratu du Durangoko estazioan "datuen herena" falta dela. Airearena "arazo serioa" dela nabarmendu du Riosek; Osasunerako Mundu Erakundeak (OME) egindako ohartarazpenak eta Pedro Sanchez Espainiako presidentek esandakoak –estatuan

Eskualdean, Durangon eta Zornotzan baino ez daude airea neurtzeko gailuak



Eguaztenean eman zuten prentsaurrekoa Durango, Elorrio, Berriz eta Zaldibarko Ahal Duguko kideek, Becerra parlamentariagaz batera.

urtero 30.000 lagun hiltzen direla kutsadura atmosferikoagatik– ipini ditu mahai ganean.

Estazioez gainera, beste hiru neurri eskatu dituzte: neurketa balioak OMEk ezarritako balioetara

murriztea, neurketek informatzea eta herritarrak babesteko protokolo bat diseinatzea.

anboto
komunikabideak

Bixente Kapanaga, 9
48215 Iurreta - Bizkaia
Tel.: 946 816 558

Erredakzioa: 946 232 523
Publizitatea: 946 217 902
publi@anboto.org

2018ko irailaren 21a
16. urtea - 734. alea

Zuzendaria: Jone Guenetxea Arrinda.
Erredakzio burua: Markel Onaindia Txabarri.
Administrazio burua: Itziar Belar Zubizarreta.
Administrazioa: Miren Abasolo Txabarri.
Publizitatea: Alazne Salcedo Artetxe eta Itxaso Martinez de Arenaza Yarza.
Erredakzioa: Aitziber Basauri Gandiaga, Joseba Derteano Bilbao, Markel Onaindia Txabarri, Maialen Zuazubiskar Gallastegi eta Aritz Maldonado Zabala.
Maketazioa: Bea Sierrasumaga Guezuraga.
Zuzentzailea: Mikel Azkarraga Etxegibel.

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua

Lege gordailua:
BI-2268/01
ISSN:
1578-7028
Tirada:
11.500 ale

2015 **Bikam**

PEFC
www.pefc.es

Euskaraldia egitasmoan parte hartu gura duten herritar guztientzako izen-ematea hasi dute aste honetan

Ekimenera internet bidez batu daiteke 'www.euskaraldia.eus' webgunean; Zaldibarren gaur postu bat jarriko dute kalean izena emateko; Durangoren kasuan, Euskaraldiak lokal bat zabalduko du Alde Zaharreko Artekale kalean jaien ostean



Durangoko Euskaraldiko eragileetako batzuk asteon ataratako argazkian.

DURANGO • JOSEBA DERTEANO

Euskaraldia, azaroaren 23tik abenduaren 3ra hizkuntza ohituretan eragitea helburu duen egitasmoa, martxan da. Parte hartu gura duten guztientzako izen-ematea atzo hasi zuten. Izen-emate orokorra www.euskaraldia.eus webgunean egin daiteke. Durangoren kasuan, Euskaraldiak lokal bat zabalduko du Artekale kalean jaiak amaitu ostean.

Elorrioren gaur, 19:15 eta 20:30 artean Algari taberna parean egongo dira. Bertan egin daiteke izen-ematea. Zaldibarren ere gaur bertan postu bat jarriko dute udaletxe aurreko plazan, 19:00etatik 20:00etara. Mañarian, berriz, batzar zabal batera deitu dute gaur, 18:00etan, udal aretoan Euskaraldia antolatzaren jarraitzeko.



Pentsioen borrokari utsiko diote Adinekoen Egunean

DURANGALDEA • M.O.

Urriaren 1a Adinekoen Nazioarteko Eguna izango da, eta Durangaldeko nagusien 14 elkarrekin egitarau bateratua aurkeztu dute Iurretan. Pentsioei buruzko berbaldia antolatu dute; Aitor Urrutia Deustuko Unibertsitateko irakasle eta politologoak emango du, 18:00etan, Jesuitak ikastetxeko Arrupe aretoan. Aurretik, irailaren 28an, ibilaldiak egingo dituzte herrietatik hasita, eta Traña-Matienan elkartuko dira guztiak.

Ekintza ugari prestatu dituzte mugikortasunaz hausnartzeko Durangon

Herriko inguruneetatik zehar egingo duten bizikleta martxaren bidez, lurreko plastikoak batuko dituzte



Durangon ekintzen aurkezpena egin zuten orain aste bi.

DURANGO • MARKEL ONAINDIA

European Mobility Week ekimenagaz bat eginez, mugikortasunaz hausnartzeko ekintza ugari prestatu dituzte egunotarako hainbat herritan. Durangon, aipagarria da inguruko auzo eta mendi bideetan egingo duten martxa, plastikoak batzeko aprobeztatuko dutena. Goiz-eguerdi partean, spinning maratona, bigarren eskuko bizikleten azoka eta ibilgailu jasangarrien erakusketa egongo dira Ezkurdin, 10:00etan hasita. Gaur, bestalde, Berdeagok mugikortasun jasangarriaren inguruko foruma prestatuko du Elkartegian, 10:00etan.

Zornotzan gaurko iragarri dituzte ekitaldiak. 17:00etan hasita, mural pintaketa eta bizikleta elektrikoaren erakusketa egongo dira, besteak beste.

Izurtzan, trafiko arazoei konponbidea ematea eskatuko dute. Udalak banderak banatu dizkie herritarrei, eta kale-argi batzuetan ere mezuak ipini dituzte. Herria bitan zatitzeak, kutsadurak eta abidura handiak sortzen diete kezka.

Auto elektrikoak kargatzeko lekua zabalduko dute Elorrioren

Birkarga lekua aste bi barru zabaltzea aurreikusten dute

DURANGALDEA • M.ZUAZUBISKAR

Elorrioko Udala autoak birkargatzeko lekua atontzen ari da. Prentsa ohar bidez jakitera eman dutenez, aste bi barru martxan izatea aurreikusten dute eta birkarga puntua Energiaren Euskal Erakundearen

(EVE) baitan dagoen IBIL sistematik kudeatuko du, EVE-ren eta Elorrioko Udalaren artean hitzarmena sinatu ostean. "Ahalik eta Elorrio jasangarriean bizi gura dugu, eta helburu horregaz jarraituko dugu lanean", adierazi du Idoia Buruagak.



Nizeto Urkizu parkean jarriko dute birkarga puntua.

ALBERDI HARATEGIA

ASKATASUN ETORBIDEA, 1 DURANGO · TEL.: 946 817 658

SABINO ARANA, 1 ZORNOTZA · TEL.: 946 308 722

Miguel Zugaza izango da jaietako txupineroa, eta Tabira Igeriketa Taldekoak txupinero txiki

Tradiziozko 'Zezenak dira' edo sokamuturraren aurkako manifestaziora deitzen hasi dira zenbait herritar sare sozialen bidez; "gizarte garatu batean" horrelako ekintzek ez dutela lekurik uste dute mobilizazioaren bultzatzaileek

DURANGO • MARKEL ONAINDIA

San Fausto jaiak hurreratzen ari dira, eta egunotan ez da nobederik falta. Miguel Zugaza Arte Ederretako Museoko zuzendaria izango da jaietako hasiera emango die, eta Tabira Igeriketa Taldekoak txupinero txiki. Sorpresa sare sozialetatik etorri da: *Zezenak dira* edo sokamuturraren aurkako manifestaziora deitzen hasi dira zenbait herritar. Urriaren 13an izango da,

Akatsen eta ustezko plagioen ostean, udalak kartel lehiaketako oinarriak aldatuko ditu

17:00etan, udaletxetik hasita. "Tradizioak garaietara egokitu behar dira, eta abereen tratu txarrak bane hartzen dituzten tradizioek ez dute lekurik gizarte garatu batean", aldarrikatu du kideetako batek. Zale ugari ere baditu sokamuturrak.

Aurretik datorren beste polemika bat kartelena da. Jaiak Agueda Larrazabalen kartelak iragarriko ditu, baina kartel bi lehiatik kanpo utzi behar izan zituzten. Akatsen eta ustezko plagioen ostean, udalak

kartel lehiaketaren oinarriak aldatuko ditu, Iker Ocejá zinegotziak aurreratu duenez.

Urriaren 11n hasiko dira jaiak. Zugazak adierazi du "oso emozionala" dagoela izendapenagaz. Txupi-

nazoa artea zabaltzeko aukera ona izango dela uste du. Bestalde, "jai baketsu, lasai eta errespetuzkoak" espero ditu. Tabira Igeriketa Taldekoek urriaren 12an jaurtiko dute txupinero txikia.



Udalak martitzenean eman zuen txupineroen berri.

Nagusien Aste Kulturalako ekintzetan elkartuko dira garaitarrak

GARAI • MARKEL ONAINDIA

San Migel nagusien elkarteak Aste Kulturala antolatzen du iraileko azken astean, San Migel egunaren harira. Aurten ere ez dute hutsik egin, eta nagusiek antolatutako ekintzen bueltan elkartuko dira garaitarrak. Karta jokoan ibiliko dira hainbat egunez, eta 29an bazkaria egingo dute. Aste Kulturalaren 12. edizioa da aurtengoa.

Hilaren 25ean briskan egingo dute, 26an tutean, eta 27an musean –denetan 17:30ean–. 29ko bazkaria Herriko tabernan izango da, 14:30ean. Ostean, bazkide zaharrenei omenaldia egingo diete, eta txapelketetako sariak banatuko dituzte. Bazkarian apuntatzeko azken eguna 26a da; 38,5 euro balio du.

Master Cupeko Leire Etxaniz txapeldunak pala ikastaroa emango du

MALLABIA • J.D.

Leire Etxaniz etxebarriarrak helduentzako pala ikastaroa eskainiko du Mallabian. Urriaren hasi eta abendura bitartean izango da. Klaseak astean behin emango ditu: martitzenetan, 19:00etatik 20:00etara. Izenematea irailaren 28ra arte egin daiteke, kultur etxean (10 euro hileko). Etxanizek hainbat txapel ditu paleta goman zein esku pilotan. Esaterako, binakako Master Cup pilota txapelketako txapelduna da.

Kirol zein kultura arloko jarduerak egiten dituztenentzat, laguntzak eskuragarri

MAÑARIA • J.D.

Kirol eta kultur arloko jarduerak zein eskolaz kanpoko hezkuntzari dagozkionak egiteagatik diru-laguntzak jaso daitezke udaletik. Udaletxean laguntza horien eskaerak egiteko epea irailaren 28an amaituko da.

Beste diru-laguntza biren gaineko eskaerak egiteko epea ere 28an amaituko da. Mugikortasunaren ingurukoak eta auzoetako argiteria publikoko argindarraren kontsumoaren alorrekoak dira.

Estazioko kirol eta aisialdi eremuetan zer egin, ikasleekin adostuko du udalak

DURANGO • MARKEL ONAINDIA

Udalak abiatutako prozesuari esker, estazio zaharreko eremuan eraikiko diren kirol eta aisiarako eremuei buruz euren ideiak helarazteko aukera izango dute Durangoko ikasleekin. "Durangoko gazteei gure udalerrira hobetzeko euren zeregi-

3.000 sinadura aurkeztu zituen Erabakik, eta salatu du oraindik ez duela erantzunik jaso

naren inguruan hausnartzera gonbidatzea da ideia", azaldu du Aitziber Irigoras alkateak. 2013an ere, ikasleekin antzerako prozesu bat garatu zuen udalak, geltokitik San Faustoraino trenbideak libre utzitako lurrei buruz.

Bestalde, planari buruz galdetuta bat egitea eskatzeko, 3.000 sinadura aurkeztu zituen Erabaki plataformak, eta salatu du oraindik ez duela erantzunik jaso.

Juanito Agirre zinegotzi ohi, dantzari eta margolaria hil da

Eako zinegotzi izan zen Durangon hiru legegintzalditan, eta Bilduko zerrendan ere parte hartu zuen gero

DURANGO • MARKEL ONAINDIA

01:30 aldera hil zen Agirre, atzo, bere garajea eduki zuen istripuan. Autoa sartzeko atea giltzaz zabaltzera zihoala, bere gainera etorri zitzaion autoa eta hormaren kontra harrapatu zuen.

EA alderdiko zinegotzi izan zen hainbat urtez Agirre, eta Bilduko zerrendan ere parte hartu zuen gero. Horrez aparte, margolari eta Kriskitineko dantzari ere izan zen. Lurretarra zen sortzez, baina Durangoko herribizitzan oso ezaguna.

Politikagintzan egin zuen ekarpenagatik ezaguna bazen ere, kulturarekiko afizionatu handia zen. Kriskitin dantza taldearen sorreran egon zen, adibidez. Margolaritza ere gustuko zuen, eta gaur egun Kurutzia akademiako ikasle zen. Bere lanak jendaurrean ere erakutsi izan zituen. Ofizios komertziala izan zen.

Dani Maeztu zinegotziak (EH Bildu) penaz hartu du notizia.



JUANITO AGIRRE

"Sekulako pena eta galera da; gainera, era mingarrian izan da. Barru oso onekoa zen, beti laguntzeko prest. Nik lau urtez soilik kointziditu nuen beragaz, baina erlazio ona egin genuen eta sekulako pena hartu dut".

Ander Gorrotxategi Durangoko EAjko presidentea ere lan egin zuen Agirregaz koalizioan joan zirenean, eta atsekabez hartu du albistea. "Beti harreman oso ona eduki dugu beragaz. Koalizioan ere, bere ideiak mantenduz, baina oso leiala izan zen. Hurbileko pertsona zen, ona, berbatia, beti umore onez egoten zena". EAjren ize-nean doluminak helarazi dizkio familiari.



Sektore anitzetako 45 durangarrek 'Orain presoak' agiria sinatu dute

DURANGO • M.O.

Sare mugimenduak *Orain presoak* dinamika aurkeztu zuen eguazten iluntzean Durangoko Plateruena kafe antzokian, eta bertan, sektore anitzetako 45 durangarrek dinamikagaz lotutako agiria sinatu zuten. Modu horretan, urriaren 20an Donostian egingo den manifestaziora babesa erakutsi zioten. "Egungo espere politikoa aldatzea ezinbestekoa" dela aldarrikatu zuten sinatutako agiriaren bidez.

Joseba Azkarraga Sareko bozeramaileak aurkeztu zuen dinamika. Jende ugari batu zen ekitaldira, eta Igor Elortzaren eta Unai Iturriagaren bertsoekin amaitu zen.



Gambiarra bidaliko duten traktorea

Orturako erremintak biltzen ari dira Abadiñon, azaroan Gambiara bidaltzeko

ABADIÑO • ARITZ MALDONADO

Gambiarrei laguntzeko asmoz, Itziar Larrinagak eta senarrak ekimen bat jarri zuten martxan udan. "Ez genuen laguntza puntual bat soilik bidali gura, benetan eragina izango duen zerbait baizik", azaldu du Larrinagak. Sorgailuak, hozkailuak, sasia garbitzeko makinak eta orturako erremintak eskatzen ari dira; traktorea, atoa eta furgoneta lortu dituzte jada; laguntza ekonomikoa jasotzeko ere prest agertu da abadiñarra. "Pozik gaude jasotako babesagaz", adierazi du. Bildutakoa azaroan bidaltzea da asmoa. Harremanetan jartzeko, itzilarrinaga@gmail.com helbidera idatzi daiteke, edo 669335675 telefonora deitu.

Zornotzako 500 baserriren argazkiak bilduma batean batu dituzte

Zornoza elkartearen eta hainbat herritarren ekarpenari esker egindako lana da



Zornoza elkarteko eta udaleko ordezkariak proiektua gauzatu duten zornotzarrekin, martitzenean egindako aurkezpenean.

ZORNOTZA • JOSEBA DERTEANO

Zornotzako baserriak, zutik dirautenak zein desagertuta daudenak, ez dira ahanzturan galduko. Zornoza elkartearen babesagaz, hainbat herritarrek Zornotzako baserrien inbentarioa egin eta dena CD batean jaso dute. Baserrien argazkiek, izenek eta bilduma egiten dutenen bizipenek osatzen dute CDa. Urriatik aurrera herritarren eskuragarri jarriko dute Zornoza elkartearen

Urriatik aurrera, asteko egun bitan, bilduma jasotzen duen CDa erosteko aukera dago

egoitzan, martitzenetan eta egue-netan, 19:00etatik 20:00etara. Bazkide direnek hiru euro ordaindu beharko dute, eta sei euro bazkide ez direnek.

Pedro Juan Arana –Zornoza elkarteko presidente ohia– Jabier Zabala eta Txomin Goienetxe izan dira proiektuko gidariak, eta Adolfo Crespo, Andres Rodriguez, Jose Begiristain, Bixenti Larruzea, Celestino Larruzea, Jesus Garmendia, Rafael Sanchez eta Guillermo Etxanojauregiaren kolaborazioa izan dute. Proiektuak Zornotzako Udalaren eta Bizkaiko Aldundiaren laguntza izan du.

Ekonomia arloko teknikariaren postua lehiaketara ateratu du Elorrioko Udalak

ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Elorrioko Udalak ekonomia arloko teknikariaren postua lehiaketara ateratu du. Otsaileko bilkuran lanpostu berriak lehiaketara aterako zituztela adierazi zuten eta interesatuek

Lanpostuan interesa dutenek urriaren 4ra arte izango dute aukera eskabideak aurkezteko

dagoeneko badute aukera eskabideak aurkezteko. Eskabideak urriaren 4ra arte aurkeztu ahaliko dira. Bestalde, instantziak Herritarren Arretarako Zerbitzuan, postaz edo tramitazio telematikoz bidez aurkeztu beharko direla azaldu dute Elorrioko Udaleko kideek.

Lanpostuari dagokionez, ekonomia teknikariaren lana udalaren premiei lotuta egongo denez, teknikariak lanaldi malgua izango duela jakitera eman dute.

Jose Antonio Azkorbebeitiari 50 urtez egindako lana eskertu diote Axpen

Zapatuan Axpen egindako 52. Euskal Herriko Artzain Txakur Txapelketan oroigarria eman zioten Jose Antonio Azkorbebeitia abadiñarrari urte askoan egindako lanagatik

ATXONDO • J.D./M.Z.

Joan zen zapatuan Euskal Herriko 52. Artzain Txakur Txapelketa jokatu zen Axpen, eta han Jose Antonio Azkorbebeitia abadiñarrak oroigarri bat jaso zuen urte askoan txapelketa horren antolakuntzan egindako lanagatik. "Urte hauetan guztietan ondo egindako lanari egindako errekonozimendua da sari hau eta oso eskertuta nago", azaldu du Azkorbebeitiak.

Datorren urtean antolakuntzan ibili beharrean ikusle moduan egongo dela azaldu du

Bestalde, datorren urtean antolakuntzan ibili beharrean ikusle moduan egongo dela azaldu du. "Nahiz eta ingurukoekin sinetsi ez, oporrak hartzeko unea heldu dela uste dut", aitortu du abadiñarrak.

Oroigarria Asun Elorriaga Gerediagako presidenteordearen eskutik jaso zuen-



Jose Antonio Azkorbebeitia Angel anaiagaz.

Gizon bat atxilotu dute Berrizen, Legutioko marihuana haztegi bateko jabea delakoan

BERRIZ • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Martitzenean pertsona bat atxilotu zuen Guardia Zibilak Berrizen. Guardia Zibilak bere webgunean jakitera eman zuenez, gizonak Legution aurkitutako ia 3.000 marihuana landareko haztegiaren jabea delakoan atxilotu dute.

Berrizen atxilotutako gizonak beste hiru pertsona ere atxilotu zituzten Legution, Eibarren eta Elgoibarren.

Guardia Zibilak jakitera eman duenez, Euskal Herrian,

3.000 marihuana landareko haztegiaren jabea delakoan atxilotu dute

Burgosen eta Kantabrian saltzen zuten marihuana, legez kanpoko merkatuan. Horrez gain, atxiloteta hauekin marihuana landatzen dabilen erakunde bat desegin dutela jakinarazi dute.



“Kirol Errota gimnasioan etxeko giroa topatuko duzu”

Kirola egin gura duen erabiltzailearen berezitasunak eta beharrianak kontuan hartzen dituzte Ibaizabal eremuko Kirol Errota gimnasioan

> KIROL ERROTA

Kirol Errota gimnasioko arduradun eta begirale hasi berriak dira Ion Larrañaga (Bergara, 1988) eta Alex Allende (Durango, 1984). Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietan lizentziatua bata, eta zenbait kirolen formakuntza profesionala duena bestea. Kirolak osasunean duen eragin positiboa kontuan izanik, eskaintza pertsonalizatuan eta hurrekoan sinesten dute, erabiltzaile bakoitzari behar duena eskainiz. Beraien aburuz, hori da Kirol Errota beste gimnasio batzuetatik bereizten duen ezaugarrietako bat. Gainera, klaseak euskaraz ematen dituzte, giro euskalduna eta etxekoa biziz Tabira auzoan dagoen gimnasioan.

Honegaz batera, zerbitzu dibertigarria eta integrala eskaintzen saiatzen dira, zenbait mota-tako jarduerak praktikan jarri. Gaur egun, 150 bat bazkidek osa-

tzen dute Kirol Errota gimnasioa, eta egoera honi esker gertuko zerbitzu bat ahalbidetzen du.

Taldeka zein bakarka parte hartu daiteke, erabiltzaile bakoitzaren helburu zein gustuen arabera. "Guk geuk osasunaren bitetik jotzen dugu, eta bakoitzaren berezitasunak eta beharrianak kontuan hartzen ditugu, gaur egun pertsonalizazio falta dagoela sumatzen baitugu. Adibidez, pertsona batek bere helburua argi ez duenean, bere egoera aztertzen dugu, eta nahien arabera ibilbidea markatzen saiatzen gara, bere ongizatera bideratuz.

Eskaintza guztiaren barne mota askotako jarduerak eskaintzen ditugu, eta gaitasun fisiko bakoitza era espezifikoan lantzen dugu. Adibidez, gaitasun aerobikoa egunero landu ahal izateko, Ciclo-indoor (kaleko hizkeran spinning esaten zaiona) eta HIIT eskaintzen ditugu. Giharren tonua lantzeko,

Bodypump, TRX eta pilatesa ere jorratzen ditugu. Eskaintza hau berezoren nahietara moldatzen saiatzen gara, eta hori dela-eta, posible da denboran zehar gure eskaintza aldatzea edota egungo eskaintzari jarduera berriak gehitzea", adierazi dute Alexek eta Ionek.

Gimnasioan izena-emateko arrazoiak

Alexek eta Ionek jarduera fisikoa eta kirola bizi ohitura osasuntsu bilakatu beharko lirakekeela us-te dute. "Gorputza mugimenduan edukitzeak dituen onurek gure bizi-kalitatea hobetzen lagunduko digute, gaur egungo bizi ohitura sedentarioak ekar ditzakeen arazoak saihestuz, eta etorkizunera begira bizi baldintza hobek izatera bultzatuz. Honek guztiak, gainera, nork bere egunerokoa hobeto eramaten lagunduko digu, familian, lagun artean, etab".



Anbotoren Lagunek doan dute matrikula

Durangozko preziorik merkeenetakoa dute gimnasioan

Kirol Errota gimnasioko prezioen baitan, deskontu baterako eskubidea dute Anbotoren Lagunek. Ez dute matrikula ordaindu beharrik, eta 39 euro aurreztuko dituzte. Etxean duten txartelagaz jasoko dute abantaila gimnasioan apuntatzerakoan. Anbotoren Lagun izan gura dutenek 94 6816 558 telefonoan dute aukera. Hileroko kuota finko orokorra 39 eurokoa da Kirol Errotan. Hala ere, deskontu zehatzak ere badituzte Ibaizabal ikastolako kideen-

tzat. Esaterako, gurasoentzat 34 euroko prezioa da hilean. Ikasleen kasuan, ostera, 29 euro dira hilean. Prezio horien guztien barruan, gimnasioaren erabilera eta klase guztiak sartzen dira. Hau da, gura duten saioetara joateko aukera dute erabiltzaileek. Gimnasioaren ordutegia 7:00-23:00 bitartekoa da astean zehar, eta asteburuetan 8:00-22:00 bitartekoa. Gimnasioko erabiltzaileek parking pribatua eskuragarri izango dute autoa aparkatzeko.

KIROL ERROTA

gimnasioa

kirolerrota@ibaizabalikastola.eus
www.ibaizabalikastola.eus
Intxaurren kalea, 54
DURANGO
Tel.: 603 740 550

FITNESSA, APARKALEKU
PRIBATUA ETA EDOZEIN
EKINTZATAN PARTE
HARTZEKO AUKERA!

- Gimnasioa
- Sauna
- Entrenamendu funtzionala
- Ciclo Indoor
- Hiit
- Pilates
- Giharren Tonua

ORDUTEGI
ZABALA
Astegunetan
07:00etatik 23:00etara
Asteburuan
08:00etatik 22:00etara

39

eurotan

Parkina
doan



Igerileku inguruko lurak erosituta, espazio horretan zer azpiegitura jarri pentsatzen dabil Otxandioko Udala

Igerilekua handitzea, kanpin gune bat atontzea eta karabanentzako aparkalekua egitea dira aukeretako batzuk

OTXANDIO • JOSEBA DERTEANO

Otxandioko Udalak igerileku inguruko lurak erosi ditu. Zehazki igerilekutik Oletarako bidera doazen lur zatirik gehienak eskuratu ditu eta zoru publikoa izango dira aurrerantzean.

Lur horietan herritarren erabilerrako azpiegitura berriak egin gura dituzte. Zenbait aukera aztertzen dabilta erabaki bat hartu aurretik. Aukeretako bat gaur eguneko igerilekuko azpiegitura

Lurak erosi ostean, dauden aukeren artean egokiena zein den aztertzen ari dira

handitzea da, baina ez da buruan darabilten bakarra. Eremu hori kanpin gune moduan egokitzea edo karabanentzako zein furgonetentzako aparkalekuak egitea dira udalean hausnartzen ari diren beste ideietako batzuk.



Aulasa enpresara heldu aurretik dagoen harizti bat da udalak erosi duen lursailtako bat.

Epaitegiak arrazoia eman dio udalari eta ez du pintadak ezabatu beharrik

OTXANDIO • J.D.

Espainiako estatuak Euskadin duen delegazioak Ospital Kalen dauden pintada bi garbitzeko eskatu zion udalari iaz. Pintadetan tortura salatu eta euskal presoan Euskal Herriratzea eskatzen da. Udaletik ezezko erantzuna jaso zuten. "Adierazpen askatasunaren esparruan sartzen direla uste dugu", dio Urtzi Armendariz alkateak. Ondorioz, Espainiar estatuko delegazioak EAeko Justizia Auzitegi Nagusira jo zuen eta sententzia uztailean irten zen. "Momentuz, arrazoia ematen digu", azaldu du Armendarizek. "Udalak ez du pintada horiek zertan ezabatu. Horrek antzerako kasuetan aurrekari bat ezartzen du", azpimarratu du.

Urtzi Armendariz: "Momentuz, arrazoia eman digu. Udalak ez du pintada horiek zertan ezabatu"



Langileek greba mugagabe bi egin dituzte; abuztu aurretik bata, eta irailean zehar bestea.

16 birkokapen eta 24 baja utzi ditu Fosecoren itxierak

Zuzendaritza eta langileak akordio batera heldu ostean, azken horiek bertan bera utzi zuten greba mugagabea

IZURTZA • J.D.

Fosco enpresako langileak eta zuzendaritza akordio batera heldu ziren joan zen barikuan. Ondorioz, hamar egun aurrerago hasitako greba mugagabea amaitutzat eman zuten langileek. Fosco Izurtzan duen ekoizpen plantaren itxierak ondorio hauek utzi ditu:

16 langile birkokatu egingo dituzte —asko Igorreko plantan—, aurrejubilazio bi egongo dira eta 24 langile lanik barik geratuko dira, inzentibatutako baja onartuta.

Fosco enpresa Vesuvius taldearen barruan dago eta talde hau bere egiturak modernizatzeko plangintza bat gauzatzen dabil.

Lurretak Emakume eta Gizonen Berdintasunerako plana egingo du

Emakumeen eta gizonen arteko berdintasun egoeraren diagnostia egingo dute, gero planaren diseinua lantzeko; urtea amaitu baino lehen egingo dute lanketa guztia

IURRETA • AITZIBER BASAURI

Emakume eta Gizonen Berdintasunerako I. Plana landuko dute Iurretan, urtea amaitu baino lehen. Diagnostia egingo dute lehenengo, gero planaren disei-

nua lantzeko. Elhuyar Aholkularitzaren laguntza eta Emakunde-
ren babesa dute.

Datu kuantitatiboak aztertuko dituzte eta informazio kualitatiboa bildu eta landuko dute:

datu estatistikoak eta udalaren barne- eta kanpo-agiriak aztertu eta emakume elkarteagaz talde elkarrizketa egingo dute. Herritarrei zuzendutako *on line* galde-
tegia ere landu dute —udaleko webgunean eta kultur etxean dago eskuragarri—. Azaroan lantaldeak osatuko dituzte, bai udaleko langile eta ordezkari politikoekin bai herritarrekin.



Berdintasunaren alde Milia Morea antolatzen dute martxoan.



BITTOR KAPANAGA

Hareek denporak!

Guardia zibilak Otxandioko futbol partidua zaintzen

Domeka honetan, irailak 23, Bittor Kapanagari buruzko bisita gidatua egingo dute Otxandioko plazatik hasita (doakoa izango da), 11:00etan. Euskarari eta euskal kulturari egindako ekarpen aberatsaz gainera, Kapanagak Otxandioko eguneroko bizitza jasotzen duen argazki bilduma handia osatu zuen urteetan egindako lanari esker.

Argazki horietako bat da aste honetan 'Hareek denporak' ataleko protagonista. Ume otxandiar bi ageri dira lehenengo planoan Otxandioko Zelaieta futbol zelaian, eta, atzealdean, argazkilaria bizkarra emanda eta Vulcano futbol taldearen partidu bati begira, guardia zibil bi ageri dira. Argazkia 60ko hamarkada hasierakoa da.

Sei hankako mahaia

Julian
Rios Santiago
SQ2D



Madriren ere badakite

Ia urte eta erdiz Durangaldeko aire kalitate txarra salatu ostean, gaia kontrolatzeaz gain horretaz asko dakien jendea ezagutzen duzu.

2017tik daramagu gaia kaleztatzen, eta gaur egun durangarren ardurarik handienetakoa da. Nola ez da, ba, izango, pertsonengan kalterik handiena eragiten duena izanik!

Estatu espainolean 30.000 lagun hiltzen dira urtean aire kalitate txarreneatik. 400.000 Europan, eta guk aierik txarreneetakoa dugu Durangon. Ez diogu guk, Madrilgo Epidemiologiaren Zentro Nazionalako bost ikertzailek egindako ikerketa batek baizik. Asteon, Espainiako presidentek ere esan du.

Ingurumenaren Ministerioak Emisioen eta Iturri Kutsatzailen Estatuko Erregistroan dioenez, hauxe daukagu Durangon: amoniakoa, bentzenoa, hidrogeno zianuroa, metanoa, sulfre-oxidoak, kloroa eta konposatu organikoak, karbono dioxidoa, kadmioa, karbono monoxidoa, oxido nitrosoa, nitrogeno oxidoak. Enpresa batzuek isuritako emisioak baino ez dira horiek. Horiez gain, trafikoa, mendian egiten diren suak (sasitza, zuhaitz mozketak eta abar) eta gure berogailuak ere kontuan hartu behar. Baita gure orografia ere, ezinezko egiten baitu kutsadura hori guztia gure bailaratik kanporatzea.

Lagun aditu batek esperimentu bat egiteko proposatu digu: Ingurumen Ministeriora deitu —hala egin dugu guk—, eta galdetu telefonoa hartzen duen teknikariari ea Durango aukeratu zuen bizitzeko. Erantzuna ez da zuen gogokoa izango.

Baina gu eta gure familiak hemen bizi gara, eta borrokatu egin behar dugu arnasten dugun airea ona izan dadin.

*Erredakzioan itzulia

Durangaldea asteen

Abadiño Lagunkoia ekimenak saria jaso du Matia fundazioaren eskutik

Abadiño | Europako Jardunbide Egokiak Lagunkoitasunean jardunaldien baitan jaso zuen saria Abadiñoeko ekimenak. Guztira, 28 proiektu aurkeztu ziren bertan, tartean, Abadiño Lagunkoia ekimenak aurkeztutakoa. "Aitorpen honek indarberritu egin gaitu eta ilusioz betetzen gaitu Abadiñon ingurune hobe baten bila pertsona nagusiok daukagun hitza eta parte-hartzeagaz aurrera jarraitzeko", adierazi dute ekimenetik.

Vueltan eginiko armen erakusketa salatu du Ongi Etorri Errefuxiatuak plataformak

Durango | Espainiako Vueltaren harira Polizia Nazionalak Ezkurdin jarritako postua salatu dute Ongi Etorri Errefuxiatuak plataformakoek. Prentsa ohar bidez azaldu dutenez, "ulertezina" iruditzen zaie udalak leku publiko batean gerrako materiala erakustea baimentzea. "Pentsatu gura dugu ez zuela horren berririk", adierazi dute plataformako kideek.

Zornotzako kultur taldeek Euskal Jaia egingo dute elkarlanean, lehenengoz

Zornotza | Kultur talde ugari daude Zornotzan, eta bakoitzak bere egutegia eta zereginak ditu. Bada, elkarlana sustatu eta euskal kulturaren adierazpen horiek kalera ateratzeko asmoz, Euskal Jaia antolatuko dute lehenengoz. Urriaren 20an izango da.

Denetarik taldeak batzen hasi dira: dantzariak, trikitilariak, musikariak, bertsolariak, txistulariak, txalapartariak, abesbatzak, antzerkilariak, batukadakoak, ikastetxeetako kideak...

Iritzia

ZUZENKETA: Joan zen asteko alean Josune Aranguren kolaboratzaileak Geure Durangaldea atalerako idatzitako kolaborazioa akatsagaz kaleratu zuen ANBOTOK. Barkamena eskatu gura diogu egileari; baita irakurleei ere. Hemen Aranguren testua, zuzen:

BERTOKO (ETA BERTAKO)

Bai berba potoloa, ahoa betetzen duten horietakoa. Izugarri maite duguna. Harrotasuna eta beste pizgarri batzuk jaiotzen dituen gure barneetan.

Uda honetako gertakari bi. Aurrena, jate txer batean menua bertako hizkuntzan eskatutakoan entzun behar izandakoa: "Beste hizkuntza batean ere nahi duzu? Hirugarrena litzateke!". Bigarren gertakaria, orogarri merke-merkea erostean, saltzaileak egin zigun opari-eskaintza: "Platertxoan agertzen den hitza bertoko hizkera dugu, galtzen ari da baina hitz egingo dizuet, aditu ahal izan dezazuen". Zein gertakari gertatu da Britainian eta zein Euskal Herrian? Jolatu hipotesi biek, erakusten duten egoerekin eta iragartzen dituzten ondorioekin. Bertokoa: harrotasuna?

Estitxu Izagirrek irailaren 5ean Argian idatzi duen "200.000 turista Gaztelugatzen harrotzekoa eta 3.000 migrari EAEn larritzekoa?" gogoetan parte hartzen duten beste hitz batzuk hartu: biotipo, babestu, hondakin, harrera, babesgune, ... Turista kopuruak eta ez beste ezerk ezartzen du udaren arrakasta erakunde balorazioan. Bitartean, herritarrak, auzolanean, plastikozko ontziak jasotzen.

Eta azken lerroak abuztuaren 13an Donostiako jaietako bertso saioan Maialen Lujanbio irakasle jakintsuak bota zuenari lapurtuta: "Hiri estandar bat bihurtzea / hartua dute eredu. Guk daukaguna erakustez, / jakina, harro geunden gu. / Ta lehen ginena ezgarenean, / zer erakutsiko degu?"

Sasoiz gaude? Badakigu zer den bertokoa?

Josune Aranguren Zatika (Filosofoa).

Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:

Bixente Kapanaga 9.- IURRETA • Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia **DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO** Alderdi, elkarte edo taldeko iritziak kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOn irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarreak barne).

uxarte
SAGARDAOGINTZA

Montorra, 6 ZORNOTZA - Tel.: 946 308 815
www.uxarte.com

ZABALIK
OSTIRALETAN ETA
ASTEBURUETAN

ASTEAN ZEHAR
ENKARGUZ
Gutxienez 15
laguneko taldeentzako

urtxintxa
jostailu denda

Jolasten ikastea errazagoa delako

Andra Mari kalea 9 - 94 400 39 69

Zure iragarkia jarri nahi duzu?

94 621 79 02

anboto komunikabideak

URTEURRENA

Urriaren 31ra arte



6.400€-tik
aurrera

SCHMIDT

Sukaldeak eta etxeko altzariak

MURUETA AUZOA Z/G
EROSKI MERKATAL ZENTRUA
48220 ABADIÑO

JAIAK!

IURRETA 2018



SAN
MIGEL
JAIAK
2018

IURRETA

Irailaren 28tik urriaren 7ra



*Iurretako Udalak
jai zoriontsuak
opa deutsuez!*

 **Iurreta**
Eleizateko Udala

Iurretako jaiak 2018**Irailak 22, zapatua**

- 8:30** Iurretako IX. Mendi Martxa
12:00 Marmitako txapelketa herrigunean
17:00 Pirritx, Porrotx eta Marimotots ikuskizuna
19:00 Asto probak

Irailak 23, domeka

- 09:00** "XXXI. Ahari lurreta" zikloturista martxa
11:00 "Beldur Barik Gunea" informazio gunea Askondon
11:00 "La otra mirada" informazio gunea Askondon
11:00 Iurretako IV. Herri lasterketa familiarra Askondon
 Adinaren arabera, zenbait zirkuitu antolatuta dira.
13:00 Asto probak

Irailak 27, eguena

- 19:00** Nesken Gomazko paleta zirkuitua, "MPB" saria

Irailak 28, barikua

- 12:00** Montoitik txapligoak
12:05 Presoen eskubideen aldeko kontzentrazioa eta brindisa (Iurretako Sare)
 Ondoren, kalejira dultzainero erraldoiek eta buru handiek alaiturik
14:00 Herriko Nagusien bazkaria
14:30 Gazte bazkaria plazan
18:00 Ohiturazko Doniel-Atxa jasotzea, jarraian dantzariekin azken entsegua
20:30 Go!azen karaokea Askondon
20:00 Erromeria LAIOTZ taldeagaz
 Atsedendian, Playbck-a

Irailak 29, zapatua

- 10:00-18:00** Futbol Festa Askondon
10:30 Dantzari eta Agintarien kalejira Montoitik plazara
11:00 Meza nagusia
11:45 Deabru beltzak: Denboran salto, haur animazio dantzariak
12:30 Igel txapelketa
17:00 Herri kirol parte-hartzaileak
18:00 Tute txapelketa finala Askondon
19:00 Dantzari Dantza eta neskek egindako Soka dantza.
 Ondoren, Betibizi abesbatza
20:30 Tributo ABBA. ABBA REVIVAL taldeagaz Askondon
21:00 Kontzertuak: AZALERA, THE VARTOOLS, OXABI eta DJa

Irailak 30, domeka

- 12:00-14:00** Umeen parkea, puzgarriak
12:30 Oilasko gastronomia txapelketa.
14:30 Aurkezpena
 Sariak: 1. Otzara eder bat
 2. Botila bi ardo
 3. Botila bat ardo
16:00-19:00 Umeen parkea, puzgarriak

Urriak 4, eguena

- 18:00** Bingo Tonbola Askondon eta jarraian txokolatada
19:00 Musikagaz jolasean Dantzari plazan

Urriak 5, barikua

- 17:00** Grafiti erakusketa eta tailerra Dantzari kalean
18:00 Maiztegiko umeen euskal dantzak Dantzarin
19:00 Antzerkia Ibarretxe Kultur etxean
19:00 Tortilla txapelketaren hasiera.
20:00 Aurkezpena
22:00 Rock kontzertuak: MOONSHINERS, KAOTIKO eta KOBAN
 Ondoren, DJ Bull
22:00 Puro Relajo Askondon

Urriak 6, zapatua

- 12:30** Poteoa
14:30 Herri bazkaria
17:00 Aldats Elektrotzaranga
20:00 Munduko aulki joko txapelketa
20:00 Erromeria LUHARTZ taldeagaz
22:00 Bertsolariak: Amets Arzallus, Maialen Lujanbio, Igor Elortza, Miren Amuriza, Jon Maia eta Aitor Bizkarra. Gai jarraitzailea: Unai Iturriaga
24:00 Erromeria Luhartz taldeagaz
 Ondoren, DJ Ainhoa

Urriak 7, domeka

- 10:00-14:00** XX.Nekazaritza eta Artisautza Azoka Andaparapen
10:30 Dantzari eta Agintarien kalejira Montoitik Plazara
11:00 Meza nagusia
11:45 Dantzariak
 Ondoren, Herri Kirolak erakustaldia
12:30 Paella Gastronomia txapelketa
14:30 Aurkezpena
 Sariak: 1.Otzara eder bat
 2. Botila bi ardo
 3. Botila bat ardo
17:30 Magoa plazan
18:30 Dantza saioa.
 Talde gonbidatua: Noe eta Asier Dantza taldea
 Iurretako dantzariak: Gorulari Dantza
 Dantzari dantza
 Ondoren, jaietako errifren zozketa
20:30 Herri afaria ARANTZAK eta PANTXOK alaiturik
20:00 Jaien amaiera ohiturazko bertsoak kantatuz. Errometiak gauerdia arte jarraituko du

Smurfit Kappa
Central Forestal

Smurfit Kappa
Nervión

50 urte
EUSKADIKO
PINUDIAK
ZAINTZEN

FURESA
FUNDICION NODULAR

BIKE&SNOW

UNDARRI

Bizikleta salmenta, konponketa eta mantenua
 Eski eta elur oholen konponketa

Bidebarreita N° 5 | 48215 -IURRETA (BIZKAIA)
 94 681 78 08 | www.undarri.eus

Bulegorako zigituak
 Fotolitoak

Betikoak
flexografía

946 202 241
 Bixente Kapanaga, 9
 48215 IURRETA

AMAYA
AUTOEN KONPONKETAK S.L.

UAI, 1 industrigunea (Orozketa errepidea)
 48215 IURRETA / Bizkaia
 126 Posta Kutxa Durango

Tel.: 946 812 123 / Faxe: 946 203 818
 e-maila: oficina@amayaautoreparaciones.com
www.amayaautoreparaciones.com

Neska eta mutil irtengo dira Dantzari Dantza egitera plazara, sanmigelak parekideago eginez

San Migel bezperan izango da dantzarien lehenengo hitzordua plazan, Doniel Atxa jaso ostean. San Migel egunean eta Errosario egunean irtengo da berriro talde mistoa plazara

EGITARAUA • AITZIBER BASAURI

Montoitik jaurtitako txapligoek jai giroz bustiko dituzte herriko kale eta bazterrak, irailaren 28an. San Migel jaietako merezitako ongiatorria emateko gozoz daude iurretarrak. Aurten, parekideago. Izan ere, lehenengoz neska eta mutil irtengo dira plazara Dantzari Dantza egitera. Bakixan egin zuten iurretako dantzariak saio parekidea lehenengoz. Oromiñon, gero. Oraingoan, herriko plaza nagusian jarri dute hitzordua, sanmigeletan. Zortzikote

mistoak orain arteko harrera ona izango duela uste du Jon Badiola dantzari iurretarrak. "Oso ondo hartu gaituzte beti, bai herrian bai herritik kanpo. Bilboko Aste Nagusian txalo artean hartu gintuzten".

Irailaren 28an, San Migel bezperan, izango da dantzarien lehenengo hitzordua: Doniel Atxa jasoko dute Aita San Migel plazan, 18:00etan, eta, ostean, dantzarien azken entsegu hasiko da. San Migel egunean eta Errosario egunean ere irtengo

Plazan Dantzari Dantza egiteko momentua "urduri" eta "emozioz" bizi dute Amaia Elizaranek, Maitane Totoriak eta Irati Otadiuk

dira plazara dantzariak. Plazan Dantzari Dantza egiteko unea "urduri" eta "emozioz" bizi dute Amaia Elizaranek, Maitane Totoriak eta Irati Otadiuk. "Harrotasunez", plaza beteta ikusteak errespetua sortu arren. Ez dute uste tradizioa apurtzen dutenik, "dantzari ez egitea litzateke tradizioa apurtea".

Tradizioz zortzikote finakoak eskaini du Dantzari Dantza sanmigeletan. Dena den, "gura duten guztiei plazara irteteko aukera emateko", azken urteetan aldatu egiten da zortzikote hori. "Baliteke egun batean mutil gehiago egotea eta hurrengoan neska gehiago", argitu du Badiolak. Hamar urte baino gehiago daramatza dantzari, eta, azaldu duenez, "badira urte batzuk dantzari gazteei erakusteko aukera eta premia ikusi genuela. Argi genuen berdintasunaren ikuspuntutik erakutsiko genielako. Ilusioz hartu dute erronka gazteek. Azken urteetako lanaren emaitza izan da. Aurretiko dantzariak ere beti animatu izan gaituzte bide honetan".

Bestalde, jaietan izan daitezkeen erasoei ahalik eta erantzunik onena emateko, protokoloa landu dute iurretako Udalak eta jai batzordeak.



Aitte San Migel jai batzordeak egindako prentsaurrekoaren irudi bat



Iurretako talde mistoak Bakixako jaietan ere egin zuen dantzan.

Mallabiena 

M.Z.O. ITURGINTZA GASA BEROGAILUA ERAIKUNTZA, S.L.

Mallabiena industrialdea, 6
48215 IURRETA
Tel.: 946 818 862 / 946 816 051
mallabiena@mallabiena.com
www.mallabiena.com

NIFA, S.L. 

VIALIDER

KAMIOIAK (José Antonio)
Tel.: 94 681 26 04

TURISMOAK (Roberto)
Tel.: 94 681 25 66

Mallabiena auzoa, 4
48215 - Iurreta
nifa@autoserviciosnifa.com

EXIRULA MUSIK 

TXIRULA MUSIK

Zelai Alai
Hipika Eskola Iurreta

ZELAI ALAI HIPIKA ESKOLA
Gaztariatza Auzoa - 48215 Iurreta - Bizkaia - 691746611

B FUNERARIA BASAGUREN

TANATORIO - CREMATORIO

ARRETA ASEGURU-ETXE GUZTIEI

BEILATOKIA - ERRAUSKETA LABEA **DURANGO** Aliendalde Ind. 8H eta 8J
BULEGOA **DURANGO** Komentu kalea, 13
www.funerariabasaguren.com
24 orduko zerbitzua: 94 681 09 95 - 94 681 13 47





Iaz 'Zirkua' izan zen mozorrotzeko gaia eta denetarikoz mozorroak ikusi ahal izan ziren.

Kirol guztiek tokia duten olinpiadak gura dituzte Mozorro Egunean

EGITARAUA • JOSEBA DERTEANO

Jai batzordeak gai bat proposatzen du urtero Mozorro Egunerako eta aurtengoa 'Gure Olinpiadak' izango da. Kirol denak sartzen dira iurretarren olinpiadetan, Joko Olinpikoetan ikusi daitezkeenak zein bestelakoak: atletismoa zein harri-jasotzea, igeriketa zein pilota. Abiapuntu horretatik aurrera, bakoitzaren imajinarioa izango da muga bakarra urriaren 6an.

Herritarren artean arrakasta duen eguna da eta "urterik urtera gero eta jende gehiago animatzen da mozorrotzera", adierazi du Miren Abasolo jai batzordeko kideak. Horregatik, mozorrodunak animatzen badira, eguerdian kalejira bat egingo dute. Ondoren, herri bazkarian batuko dira. 14:30ean izango da, Askondoko estalpean.

Gauean bertso saioa izango da pilotalekuan Amets Arzallus, Maialen Lujanbio, Igor Elortza, Miren Amuriza, Jon Maia eta Aitor Bizkarra bertsolariekin

Izen-ematea urriaren 3ra bitartean egin daiteke, Ibaiondo eta Gauargi tabernetan.

Luhartzen erromeria eta bertsolariak

Egunean zehar askotariko ekimenak egongo dira. Esaterako, bazkalostea Aldats Elektrotxarangak alaituko du. 20:00etan munduko aulki-joko txapelketa hasiko da, Iurretako Sarek antolatuta. Iluntzetik aurrerako menua ez da nolana hikoia izango. Luhartzen erromeria egongo da lehenengo, eta bertso saioa ostean, Amets Arzallus, Maialen Lujanbio, Igor Elortza, Miren Amuriza, Jon Maia eta Aitor Bizkarra bertsolariekin. Eki-mena 22:00etan hasiko da, Olaburu pilotalekuan. Sarrera doakoa da eta Unai Iturriaga arituko da gai-jartzaile.

Denen gustuak asetzeko, ibilbide bi Zaldairen martxan

Ibilbide nagusian Artatzagane eta Leungane mendiak igoko dituzte

MENDI MARTXA • J.D.

Plaza bete jende —ume, gazte zein adineko— mendiko arropekin jantzita. Sanmigeletako goiz batean Iurretan urtero errepikatzen den erretratu da eta aurtengoa ez da salbuespena izango. Zaldai taldearen IX. Mendi Martxa zapatu honetan izango da eta 08:30ean abiatuko da elizako plazatik.

Denen gustuak asetzeko, ibilbide bi antolatu dituzte. Mendian ibiltzera ohituago daudenek Artatzagane (996 m) eta Leungane (1.006 m) tontorrak igoko dituzte 23 kilometroko ibilbidean. Ibilbide errazagoa gura dutenek tontor biak ekiditeko aukera dute, 14 kilometroko ibilbide laburrago batean.

Izen-ematea egunean bertan egin daiteke, proba hasi baino ordubete lehenagora arte (15 euro). 14 urtera artekoentzat izen-ematea bost euro da ibilbide laburrean. Martxa hasi aurretik kafea eta pastak hartzeko aukera egongo da. Ondoren, ibilbidean zehar, hornidura gune bi jarriko dituzte.



Iazko aldiko irudia. ZALDAI.

SERAPIO CALVO

eskaiolazko dekorazioak

- SABAI ERREGISTRAGARRIAK •
- PLADUR HORMAK eta SABAIK •
- ISOLAMENDUAK •

Tailerra

Bidebarrieta, 7 behea • IURRETA • Tel.: 946 811 512
Mug.: 615 789 243 • serapiocalvo36@gmail.com



IURRETA
KOPISTEGIA

Bidebarreita 1 behea
48215 Iurreta (Bizkaia)
Tel.: 94 681 10 70
info@iurretakopi.com
www.iurretakopi.com



IRIARTE
calderería / burdin lanak

Poligono Industrial Ertzilla, 2 - Pabellones 17-18
48215 IURRETA (Bizkaia)
Tel. 946 814 890 - Fax: 946 816 245
contacto@caldereriariarte.com

www.caldereriariarte.com



**DESGUACES
PILASTRA**

- CAT zk. EU2/097/04
- Desegiteko diren ibilgailuen erosketa
- Ordezko pieza erabilien salmenta
- Grua zerbitzua

Administrazioa, bajak eta faxa: 946 218 079

Osagarrien salmenta: 946 201 787

e-mail: desguacespilastra@gmail.com

Fauste auzoa, 18 - 48215 IURRETA (Zugastietara bidean)



DDS

DESARROLLO
de SISTEMAS

info@dds-online.net
902 197 296 / 946 300 596

Txikerra kalea, 2-2 B-C
ZORNOTZA

www.dds-online.net



ALDEKOA-OTALORA iturgintza
ITURGINTZA - BEROGINTZA - AIREA - GASA
MANTENIMENDU INDUSTRIALA

info@aldekoaotalora.com - 692 859 779

Zubiaurre, 8 IURRETA - 946 202 768

Ind. Arzubia - Pab. 13-14 ABADIÑO - 944 071 791

Aitor Bizkarra abadiñarra, onenekin batera

Jaietako bertso saioa urriaren 6an izango da, 22:00etan, pilotalekuan



Bizkarrak Bizkaiko txapelketan parte hartuko du.

BERTSOLARITZA • M.O.

Bertso saioa da sanmigeletako kultur jarduera garrantzitsuenetako bat, eta urtero jendez lepo egoten da pilotalekua. Urriaren 6an izango da, 22:00etan, eta Unai Iturriaga izango da aurkezlea. Nobedade nagusia Aitor Bizkarra izango da; Abadiñoko bertsolari gazteak jaialdi garrantzitsu honetan kantatzeko aukera edukiko du. Udazkenean jokatu den Bizkaiko txapelketan ikusiko dugu Bizkarra.

Beragaz batera, Miren Amuriza berriztarra eta Igor Elortza durangarra ere arituko dira Iurretan. Gainerakoak Maialen Lujanbio Euskal Herriko egungo txapelduna, Amets Arzallus eta Jon Maia dira. Beraz, denak ere bertsolarietako izen handiak.

"Jaietan dantza estiloak nahastea ideia polita da, iraultzailea"

Dantza latinoak eta modernoak eskainiko dituzte Perezen eta Quintanaren ikasleek plazan

DANTZA • MARKEL ONAINDIA

Dantzari Dantza da Iurretako jaietako oinarri sendoetako bat, baina aurrean bestelako dantza artistikoak ikusteko aukera ere egongo da. Jaietan azken egunerako, dantza talde bat gonbidatzeko ohitura dute, eta oraingoan etxean bertan topatu dute. Noemi Perez Sierrak eta Asier Quintana Gonzalezek dantza ikastaroak eskaintzen dituzte herrian: salsa, bachata, kizomba, urbanoa... Bada, eurek eta ikasleek jendarean erakutsiko dituzte euren trebeziak. Arratsalde berean dantza tradizionalagaz tartekatuko dute saioa, eta kontrastea interesgarria izan ahal dela uste dute. "Jaietan dantza estiloak nahastea ideia polita da, iraultzailea", esan du Perezek. Pozik hartu dute jai batzordearen gonbidapena.

Perezegaz eta Quintanagaz batera, hogeita bat dantzari irtengo dira plazara, eta estilo desberdinetako lau dantza eskainiko dituzte. Gainera, arropa eta ikuskizuna lekura egokitu dituztela dio Perezek.



Euren ikastaroetan parte hartu gura duenak Facebook bidez kontaktatu dezake.



Eguaztenean aurkeztu zituzten lasterketaren nondik norakoak.

Elkartasunez eta errespetuz betetako herri lasterketa

Umeek eta helduek ere badute korrika egiteko aukera

KIROLA • M.O.

Gu Be Bai Runners taldearen eskutik, IV. Herri Lasterketa Familiarra egingo dute domekan. 11:00etan umeen txanda izango da, eta handik ordu erdira, helduena. Partaideek euro bat emango dute, La Otra Mirada elkarteak Senegalgo eskola bati laguntzeko duen proiekturako. Hain zuzen, elkarte honek errifa solidarioa egingo du han. Anderebide ere egongo da, udalagaz eta jai batzordeagaz landutako protokoloaz informatzen, besteak beste. 13:00etan umeentzako herri kirolak prestatuko ditu HEKI elkarteak.



Zuremenua

Ondo pasa jaixetan!

Katering zerbitzuak

688 614 162 • info@zuremenua.com



ESTANCO IURRETA

Zubiaurre, 3 - 48215 Iurreta
Tel.: 944668237



Bixente Kapanaga, 3 - IURRETA izarbek@izarbek.com
Tel.: 946 812 280 - Faxes: 946 216 336

OKINDEGI

ALBERDI

Mallabiena, 1 - Tel.: 94 681 03 62 - IURRETA

INSTALAZIOAK
ETA BERRIKUNTZAK

ALDA S.L.

- Iturgintza
- Berogailua
- Gasa
- Igeltserotza
- Gremioen koordinazioa

C/ Uralde, 8 bajo
482015 IURRETA
Tel.: 94 681 20 86
cons.alda.sl@gmail.com

ASIMAIR
COMPRESORES

SALMENTA ETA ASISTENTZIA
TEKNIKO ZERBITZUA

Ertzilla ind., pab. 7, 8 eta 16.
48215 IURRETA (Bizkaia)
Tel.: 946 202 415
asimair@asimair.com

Garage SAN MIGUEL

TallerXXI

ESPEZIALISTAK DIESEL
ETA GASOLINA MOTOREAK
KONPONTZEN

Dantzari auzunea, 8
IURRETA
Tel.: 946 811 479
garagesanmiguel@gmail.com
www.garajesanmiguel.es





Dantzari kalean egingo dute grafiti tailerra.

Bosgarren urtez grafiti tailerra egingo dute Iurretako jaietan

Irailaren 28an hasi eta urriaren 7an amaituko diren sanmigeletan etxeko gaztetxoek hainbat ekintzaz gozatzeko aukera izango dute udalari eta Jai Batzordeari esker

GAZTEENTZAT EKINTZAK • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Azken urteetan herriko kale eta hormak itxuraldatu egiten dituzte Iurretako San Migel jaietan. Herriko hormak txukuntzeko asmoz, Iurretako Udalak grafiti tailerra jarri zuen martxan orain bost urte, eta ekimenak jaietan izan zuen "arrakasta" ikusita, ekimenari jarraipena ematea erabaki zutela adierazi dute Iurretako Udaleko kideek.

Irantzu Lekue durangarrak dinamizatuko du tailerra. Urriaren 5ean izango da eta 17:00etan hasiko da. Dantzari kalean egingo den ekintzaren gaia *Emakumea historian zehar* izango da.

Grafiti tailerra ume, gazte zein helduentzako ekintza bat dela jakitera eman dute udaleko kideek, eta bertan parte hartzeko deia egin diete herritarrei. Azaldu dutenez, behin tailerra bukatuta, grafiti erakusketa ere egongo da.

Ekintzak gazteentzat

Urriaren 5eko grafiti taileraz gain, etxeko gaztetxoek hainbat ekintzaz gozatzeko aukera izango dute aurtengo sanmigeletan Iurretako Udalari eta Jai Batzordeari esker.

Urriaren 5ean grafiti tailerra egingo dute Dantzari kalean, 17:00etan, eta Irantzu Lekue durangarrak dinamizatuko du

Irailaren 22an, Pirritx, Porrotx eta Marimototsen ikuskizuna egongo da. Herriko plazan izango da, 17:00etan. Irailaren 23an, 11:00etan, IV. herri lasterleta familiarra egingo dute, eta irailaren 30ean umeen parkea eta puzgarriak egongo dira, besteak beste.

Hamarkada bi beteko ditu aurten Iurretako azokak

Errosario Egunean inguruko nekazarien produktuak ikusi, dastatu eta erosteko aukera egongo da Iurretan



11:00etan zabalduko ditu ateak azokak

AZOKA • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Urriaren 7an, Errosario Egunean, egingo dute aurten hamarkada bi betetzen dituen Nekazaritza eta Artisautza azoka. Aldaparapen egingo dute, eta 11:00etan zabalduko ditu ateak. 14:00ak arte, mota askotako produktuak ikusi, dastatu eta erosteko aukera egongo da.

Iurretako Udalak antolatzen du azoka eta aurten 32 postu egongo dira. Horietatik 10 artisauenak izango dira, eta gainontzeko postuak, inguruko nekazarienak. Horrez gain, urtero lez, Iurretako Nekazaritza eta Artisautza azokara bertaratzen direnek txahal errea dastatzeko aukera izango dute.

Hainbat ekintza

Urteroko azokaz gain, Errosario Egunean dantzari eta agintarien kalejira, dantza saioa eta herri kirolen erakustaldia ere egongo dira, besteak beste. Bestalde, iurretarek paella txapelketan parte hartzeko aukera ere izango dute.

Iurretako Udalak antolatzen duen azokan 32 postu egongo dira. Horietatik 10 artisauenak izango dira eta gainontzeko postuak inguruko nekazarien produktuek osatuko dituzte

■

URALDE
KLINIKA DENTAL

Begoña Zubimendi Goxencia

Uralde 1, Bajo
Esquina Bixente Kapanaga
48215, Iurreta, Bizkaia

667 097 575 · 946 550 055
info@klinikauralde.com
www.klinikauralde.com

ARRIBIDE
.. GASOLINDEGIA ..

Arriaundi Industrialdea P1
48215 IURRETA Bizkaia
Tel. 946 818 381
estacionservicio@arribide.com

Ondo pasa San Migeletan!

www.arribide.com

IKUSPEGI
JATETXEA



Goiuria, 12 IURRETA
Tel.: 946 811 082- www.ikuspegi.com

BAÑOS
IURRETA

Erakusketa eta komuneko osagarrien salmenta

ITURGINTZA
BEROGAILUA
GASA

Tel-Faxa: 946 202 433
NICO: 629 233 318
Email: b.iurreta@yahoo.es

Maspe kalea, 4 - 48215 Iurreta

Ondo pasa San Migeletan!



Ingurukoak errespetatuz gozatu!

aitte san migel
jai batzordea

IURRETA

HARATEGIA
FRUTA DENDA

Bixente Kapanaga, 4 - IURRETA



Koban, Moonshiners eta Kaotiko igoko dira Iurretako oholtzara

Elektroswinga jorratzen du zazpi gazte gipuzkoarrek osatzen duten Koban taldeak; udaberrian diskoa kaleratu ostean, uda plazaz plaza igaro dute erritmo bizien zaleen gerriak dantzan jartzen

MUSIKA • A.M.

Joan den mende hasierako elegantziagaz eta egungo erritmoen arteko nahasketagaz musikaren munduan bere tokia egiten ari da elektroswinga. Berriagoak dira doinu hauek gurean, baina Koban taldekoak badabilta handik eta hemendik gerriak dantzan jartzen. Udako agenda kontzertuz lepo eduki eta gero, gipuzkoarrek Iurretan arituko dira San Migeletan euren proposamen dantzagarria zuzenean defendatzen.

2016 inguruan jaio zen taldea, Donostian Korxoeneatik Tabakalerarako trantsizio garaian. Hainbat kideren joan-etorriaren ostean, taldea egonkor-tu eta *Koban* lana kaleratu du udaberrian. Hamaika kantutan zehar, trikitiaren eta instrumentu

Urriaren 5ean akelarre erraldoia egingo dute Iurretako plazan. Kobanegaz batera Kaotiko eta Moonshiners taldeek eskainiko dute kontzertua

elektronikoen bidez, elektroswingaren lurraldean bidaiatzea proposatzen du lanak. Dantzarako giroa sortu bai, baina mezu politikoa ere zabaltzen dute. Kobaneko kideek euren egiten dute Emma Goldman feminista anarkistaren "Dantzatu ezin bada, ez da gure iraultza" leloa.

Denetariko eskaintza

Ohikoagoak diren doinuek ere edukiko dute lekua plazako oholtzan. Horrela, Kobanek Kaotikogaz eta Moonshinersegaz batera partekatuko du taula gaina urriaren 5eko gauean. Aurretik, Azalera, The Vartools eta Oxabi taldeek kontzertua eskainiko dute irailaren 29an. Erromeriarako tartea ere egongo da, noski: Laiotzek, Arantzak eta Pantxok, eta Luhartzek alaituko dute plazako giroa.



Koban taldea, zuzeneko batean.

Bada jai giroa Aita San Migel plazatik haratago ere

Urtero legez, herrigunea girotzeko egitaraua prestatu dute tabernariak



Marmitako txapelketa jai egitarauan egonkor-tu da.

EGITARAUA • ARITZ MALDONADO

Festa aita San Migel plazatik haratago —Iurretako herrigunean— zabaltzeko asmoagaz elkartzen hasi ziren tabernariak. Izan ere, jaietako jarduerarik gehienak plaza inguruan izaten dira, eta urteetan eskatu izan dute herrigunean ere ekintzak egotea eta herrigunea bera apaintzea. Euren ustez, onuragarria da jai giroa leku gehiagotan indartzea.

2016an prestatu zuten lehenbizikoz egitaraua tabernariak. Ordutik, egonkortzen joan dira ekimenak. Jaiak hasi aurretik, herrigunea girotzeko, marmitako txapelketa egingo dute zapatu eguerdian. Irailaren 29an, tortilla txapelketa eta tute txapelketa finala izango dira.

Gauargi Taberna
Te bereziak
Gozari berezia
Dantzari, 5 - Iurreta

IBAI-ONDO KAFETEGIA
Goizeko 06:00etatik aurrera gosariak eta pintxoak
Bixente Kapanaga, 11 • 48215 IURRETA
Tel.: 94 620 21 57

LA GIPUZKOANA JATETXEA
Bixente Kapanaga, 2 - IURRETA
Tel.: 946 811 005
Eguneko menua astelehenetik larunbatera.
Menu bereziak enkarguz.
Berezitasuna, "arrautza apurtuak"

Azkonizaga
Edari banaketa
GARAGARDOAK • ARDOAK • LIKOREAK
ESNEA • URA • FRESKAGARRIAK
Lejarza, 1 48213 Izurtza (Bizkaia) Tel.: 94 681 06 52 / 615 78 55 58
azkonizaga@azkonizaga.com

PANTXOKIN
ondo pasatu jaietan!
Iurretako **BATZOKIA**
Eguneko menua
Enkargatutako afariak
Asteburuetako afariak
Bixente Kapanaga, 21
Tel.: 94 620 27 64

BAR LA CUADRA
Bixente Kapanaga, 10 IURRETA

La Botaguilla
PINTXOS & SNACKS
Pintxoak eta aperitiboak
Dantzari auzunea, 6 - IURRETA
Tel.: 944 669 357




IURRETA

Tellitu-n udazkenean hasiko gara eraikitzen

*3 logelatako
6 etxebizitza*

*2 logelatako
11 etxebizitza*

*Garajea eta
trastelekua barne*



ZARATE ELEXPE
ERAGILEAK

Kontsultatu beste aukerak

Tel.: 946 816 673
www.zarateyalexpe.com

"Artea zerbait sozialtzat ulertzen dut, barruan dugunari bideak edo tresnak eskaintzeko modua delako"

Bere lanak erakusketan ezartzen hasi da ostera Amaia Asategi artista durangarra; horietako batzuk Durangoko Museoan eta Garain erakutsi ditu aurtan



Amaia Asategi Iturralde
Diseinatzaile grafikoa eta artista

Durango | 1986

ditut, izan ere, zure obran guztiz sinetsi behar duzu horrelako gauzak egiteko. Hala ere, denbora honetan ez diot sortzeari utzi. Lan asko pila-tu ditut, neuk bakarrik ikusi ditudanak, eta orain erakusteko gogoat dut; balioa emateko aukera bat ere badela uste dut.

Garaiko erakusketa lotu nuenetik, buru-belarri egon naiz horretara. Esperientzia oso interesgarria izan da, asko ikasi dudalako. Igarri dut, adibidez, ez nuela esperientziarik erakusketa bat antolatzeko. Erakusketa gehiago lotzeko bultzadaren izan da.

Durangoko Museoak antolaturiko erakusketa kolektiboan ere parte hartu zenuen. Zelako esperientzia izan zen?

Esperientzia oso polita. Andragunean antolaturiko erakusketa ibiltaririk sortu zen guztia, eta oso oroitzen onatzen dut. Eta hobea izango litzateke denok espazio komun bat edukiko bagenu sortu ahal izateko, ekimen honi jarraipena eman ahal izateko, baina lehenbiziko pauso ona izan zen. Honi esker, kolektibo baten barruan egon edo mugimendu baten parte izan naitekeela konturatu nintzen.

Artisten eta sortzaileen esku dago elkarlanaren eta mugimenduen garapena. Gizarteko beste esparru batzuetan bezala, gizartean eman den indibidualizazio prozesua nabaria da artean ere.

Gabezia bat igartzen duzu emakumeekiko?

Orokorrean, artisten mugimendua-rikiko, baina are gehiago emakumeekiko, bai. Nire ustez, sorkuntzara bideraturiko espazio gehiago sustatu beharko litzuzke udalak. Emakumeen Etxetik egiten du eskaintza, normala den moduan, baina udalaren aldetik ez dago hainbeste eskaintzarik.

Utzikeria moduko bat?

Orokorra dela uste dut. Gizarteak erroan duen arazo bat dela esango nuke. Arteak ez da beharrezkotzat ikusten. Guggenheimera joan eta obra bati segundo gutxi batzuk eskaini dizkion jendea ikusi dut. Baina, nire aldetik ere, onartu beharra daukat esperientzia edo hezkuntza ezak ere baduela bere eragina.

Amaia Asategi, esku artean berak egindako koadro bat duela.

ARTEA • ARITZ MALDONADO

Amaia Asategi artista durangarrak betidanik eduki du argi sorkuntza-zen bidetik jo gura zuela. Hainbat alor ukitzen ditu bere arteak, baina, batez ere, efimerotasuna jorratzen duen artea du gustuko.

Argi zenuen hasieratik artea zela zure aukera?

Batxilergo artistikoa egin nuen bere garaian, eta, ostean, diseinu grafikoa ikasi nuen. Lan mundura irteera gehiago izango zuelakoan egin nuen aukeraketa. Ostean, Arte Ederrak ikasi nuen. Arteak gehiago betetzen nau, libreago egiten delako lan; diseinuan, azken finean, bezeroaren menpe zaude. Argi nuen sorkuntzatik joko nuela.

Hainbat alor lantzen dituzu. Zein da gehien betetzen zaituena?

Asko gustatzen zait material birziklatuagaz edo elementu naturalekin lan egitea. Makina bat gauza erreskatatu ditut plastikoaren zaka-rrontzitik. Ez dakit zehazki zein

diziplina litzatekeen hori, baina gustuko dut gauzei bigarren erabilera hori ematea. Hala ere, gero eta gehiago kostatzen zait obren sormen metodologikoari buruz berba egitea. Karrera amaitu ostean, "Sorkuntza eta Inbestigazioa Artean" masterra egin nuen. Bertan, unibertsitatean irabazi nuen konfiantza eta liberazioa galdu nituen; guztiak oinarri teoriko bati lotua izan behar zuela erakutsi ziguten masterrean, eta asko kostatu zait zama hori gainetik kentzea.

“**Masterra egitean, karreraren irabazitako konfiantza, liberazioa, galdu nuen; orain berreskuratzen nabil**”

Zein artistek izan dute eragina zuzen?

Karrera hasi nuenean, efimerotasuna lantzen zuten mugimenduak gustatzen zitzaizkidan gehien. Landart, adibidez. Landartek kalean egiten du lan eta oso gogoko dut hori. Artista moduan, Richard Long asko gustatzen zait, adibidez.

Euskal Herriko hainbat artistaren ibilbideari ere jarraitu diot, Uxue Ruiz de Arkaute, Itziar Okariz... Durangaldean, Carlos Martinez durangarra, Fernando de Vicente berriztarra eta Damaris Pan mallabitarra nabarmenduko nituzke.

Artea zerbait sozialtzat ulertzen duzu?

Zerbait sozialtzat ulertzen dut sormena, arimari edo barruan dugun horri bideak edo tresnak eskaintzeko modu bat delako. Eraldaketarako gaitasuna du arteak, baina ez dut uste terapia moduan edo zerbait konpontzeko balio duenik. Hala ere, prozesuari norberak

eman behar dio zentzua eta egiteko modua. Obrak ez, metodologiak izan behar du intimoa.

Aurtan erakusketa bi egin dituzu. Zelan joan dira?

Sasoika egin izan ditut. Karrera amaitu aurretik pare bat egin nituen, adibidez. Bata, klasekideekin ZAWP [Zorrotzaurre Art Work in Progress] gunean. Bestea hiru lagun elorriarrekin batera, Iturrin. Azken urteetan buru-belarri aritu naiz diseinuan lan egiten eta erakusketak albo batera utzita eduki

“**Gizarteko beste esparru batzuetan bezala, artean ere eman da gizartean emandako indibidualizazioa**”

Zapatuan estreinatuko da Zinemaldian Mikel Urdangarin protagonista duen 'Margolaria' filma

Joseba Sarrionandiaren irudiari buruzko 'Gure Oroitzapenak', eta Asier Bilbaok ekoiztu duen 'Vitoria, 3 de marzo' ere estreinatuko dira Zinemaldian; 1976an Arabako hiriburuan jazotako gertaeretan oinarritzen da Bilbaoren pelikula

ZINEMA • A.M.

Zapatuan estreinatuko da *Margolaria*, Mikel Urdangarin abeslari zornotzarra protagonista duen dokumentala. Donostiako Zinemaldian izango da estreinaldia. Alain Urrutia margolariak obra bat eskaini zion musikari zornotzarrari, baina baldintza bat ezarrita: Urdangarinnek ferryz joan beharko zuen Londresera oparia jasotzera. Bidaia horren istorioa da pelikula. Bidaia hori aitzakia gisa hartuta, musikari batek agertokitik kanpo bizi duenari buruzko istorioa da *Margolaria*. "Bere lanetik bizitzeko apustua egin duen artista baten eguneroko borroka ezagutuko dugu, sorkuntzaren alkimia, ezinaren izerdia, porrotaren itzala, ospearen osteko bakardadea", azaldu du Oier Aranzabal zuzendariak.

Sarrionandia, protagonista

Zinemira euskal zinemari propio gordetako saila da. Bertan, hamabi film eskainiko dituzte, eta horietako bi, Kursaal; euskal zinema

ikusgarriago egitea da asmoa. Besteak beste, Joseba Sarrionandiaren zenbait alderdi jasotzen dituen *Gure Oroitzapenak* ere sail honetan aurkeztuko dute. Hamabi lagunek zuzendu dute film hau; besteak

beste, Fermin Muguruzak eta Mireia Gabilondok hartu dute parte proiektuan.

Eskualdeko parte-hartzea duen beste pelikula bat ere estreinatuko dute Zinemaldian. Hain zuzen ere,

Asier Bilbaok ekoiztu duen *Vitoria, 3 de Marzo* irailaren 26an ikusi ahalko da. Bestalde, Eneko Sagardoy protagonista duen *Errementari* ere eskainiko dute Donostiako festibalean.



'Margolaria' filmak Mikel Urdangarin bidaia bat kontatzen du.

Norbera den bezala maitatzeari buruz hausnartzeko gonbidapena


'Lur' antzezlanagaz abiatuko da San Agustin kulturguneko ikasturte berria; hilaren 23an taularatuko dute, 18:00etan

ANTZERKIA • A.M.

Pentsaraztea du helburu Xake ekoiztetxearen obra berriak. Izan ere, Ane, protagonista, bulba duen mutila da. Aitita Julianek opari berezia egin gura dio Ane ilobari bere seigarren urtegunean, eta berarentzat propio eginiko panpina oparituko dio. Panpina horregaz batera, bidaia berezia abiatuko dute

Anek eta Julianek, izar magiko baten bila. Bidaia horri esker, Aneren eta Jon aitaren arteko harremana ere berbideratuko da.

Lur Getari Etxegaraik zuzendu du. Gidoia, berriz, Kepa Errastik idatzi du. Errastik aktore lanak ere egiten ditu obran, Erika Olaizola, Mikel Laskurain eta Nerea Gorritigaz batera.



Erika Olaizola da protagonistetako bat.

Geure Durangaldea

Ainhua
Urien Telletxe
Ikaslea



Bidaia bat autobusean

Garraio publiko batean denetarik gerta daitekeela ikusi eta ikasi dut hirian bizi naitzenetik. Eta hiriko garraio publikoaren artean autobus urbanoen aparteko unibertsoan beti zerbait gertatzen ari dela ohartuta nago.

Lagun bat eta biok igo gara arratsaldeko azken orduan etxe parean utziko gaituen 5. lineako autobusera. Ohi bezala, zutik geratu gara. Gure aurrean, elkarri begira egoten diren eserlekuetan, adineko andra-gizon bi, bata bestearen parean, aurrez aurre.

Begiratzeko tentazioari eutsi ezinik, haien arteko harremanari erreparatzen hasi gara. Lau hanka elkarren artean ia katramilatuta, bataren eta bestearen arteko espazio hutsi muzin eginez, kontaktua baliatuz, baldar antzean ere bai, tarteka.

Bata bestearen besoak leihoan zehar elkarrengana luzatuta, eta bi esku desberdinen atzamar puntak kiribilduta, elkarri kili-kili eginez bezala. Amodio keinuak eta kontaktu fisiko kitzikagariak.

Autobusetik jaitsi bezain pronto hasi gara laguna eta biok ikusitako egoerari buruz harriduraz, goxotasunez eta batez ere poztasun handiz berbetan. Izan ere, ez da ohikoa adineko bi pertsonen maitasun keinu hain esplizituak leku publiko batean egitea.

Berbalizatzea asko kostatzen zaigun beste gai bat da pertsona nagusien arteko sexu harremanena. Libertateak aldarrikatzen ditugun garaioan, arreta gehixeago jarri beharko genioke gai horien kudeaketari ere. Harreman horiek bistaratzeko ohikoa ez izateak ez baitu esan nahi inexistenteak direnik.

www.plateruena.eu

PLATERUENA

$E=mc^2$ Nik Nobel b Poto!

Irailak 21 - 19:00etan

JAKINDURIEK MUNDUE ERREKO DAU

Bertso saioa

PLATERUENA Kafe Antzokia
Landako Hiribidea, 4A
DURANGO
Tel.: 946 030 300
jaletxe@plateruena.net

LUR

Xake Produksioak
Haurrentzako antzerkia

Irailak 23, domeka
18:00etan

San Agustin KULTUR GUNEA
DURANGORRI UDALA

Sanagustinalde, 12 · Tel.: 946 030 021 · sanagustin@durango.eu

Durangaldeko irakurle klubak martxan dira txikitatik literaturaren mundura hurbiltzeko

Irailaren 26ra arte dago epea izena emateko; beste adin tarteentzako irakurle klubak ere jarriko dira martxan urrian



Irakurtzea, ikasketagaz barik plazeragaz lotzea da asmoa.

IRAKURMENA • A.M.

Durangaldeko liburutegientzat ere hasi da ikasturte berria, eta, horregaz batera, eskaintza zabala dute kulturazaleek. Ekimen guztien artean, irakurzaletasuna bultzatzea helburu dutenak dira batez ere nabarmendu direnak.

Iurretako Herri Bibliotekan, adibidez, hainbat ekimen jarriko dituzte martxan datozen asteetan irakurzaletasuna lantzeko. Hiru

ekimenetan izen-ematea zabalik dago jadanik; irailaren 26an amaituko da (ez erroldatuen kasuan, 24tik 26ra bitartean edukiko dute aukera, lekurik egonez gero). Alde batetik, Azalerako Ipuinak-en

bidez, irakurzaletasuna 0-3 urte bitarteko umeengan lantzea dute helburu. Abesti, ipuin, masaje eta hitz jokoen bidez, entzumena, ikusmena eta dastamena garatzea du helburu; gutzia, giro lasai eta

samur batean. Saroa Bikandik dinamizatuko du Azalerako Ipuinak. Mintzoan Kux-Kux irakurketa klubaren funtsa, oster, haur eta gurasoei irakurketaz elkarregaz gozatzeko gunea eskaintzea da. Galzagorri elkarteak dinamizatuko du hau, eta 3-5 bitarteko umeentzat eta hauen gurasoentzat zuzendurik dago. 8-13 urte bitarteko gazteenentzat, oster, Paperezko Hegoak irakurketa kluba jarriko dute martxan. Txomin eta Peru Magdalena anaiak arduratuko dira euskarazko

Azalerako Ipuinak, Mintzoan Kux-kux eta Paperezko Hegoak dira ikastaroetako batzuk

ipuin eta liburuen irakurketa bestelako jardura osagarriekin batzeaz. Bestalde, guraso, hezitzaile eta haurren irakurketa sustatzea helburu duten laguntzetan, Irakur-lagunak ekimena ere eskainiko du liburutegiak. Saroa Bikandi izango da honen dinamizatzailea.

Udazkena, liburutegian

Urritik aurrera, XL irakurketa klubaren eta emakumeen literatura tailerraren txanda izango da, besteak beste.

Txistu Egunaren XVIII. edizioa ospatuko da zapatuan Zornotzan

Udazken txistulari taldeak antolatu du Txistu Eguna

TXISTUA • A.M.

Aurtengoan, bost txistu taldek parte hartuko dute: Usartza, Adurtza, Kankinkabara, Jaizale eta

Udazken taldeek. 17:00etan kalejiran irtengo dira herriko zenbait tokitatik, eta 18:00etan guztiak elkarregaz ibiliko dira.



Iazko Txistu Eguneko irudi bat.

Durangoko Azokako guneetan nobedadeak aurkezteko epea urriaren 1ean zabalduko da

Gune bakoitzari dagozkion argibideak webgunean bertan azalduko dira, 'Guneak' deritzon atalean; urriaren 1etik aurrera eman beharko da bertan izena

AZOKA • A.M.

Durangoko Azokan nobedadeak aurkeztu gura dituzten sortzaileek urriaren 1etik 15era bitarteko epea edukiko dute izena emateko. Abenduaren 5-9 bitartean egingo da 53. Durangoko Azoka. Bost egun horietarako, egitarau zabal prestatu dute, mahai-inguru, hitzaldi, emanaldi eta abarrekin. Areto Nagusia, Kabia@, Ahotsenea, Azoka TB, Szenatokia, Irudienea, Saguanbara eta Plateruena izango dira aurkezpenetarako guneak. Informazio gehiago [durangokoazoka.eus](#) helbidean dago eskuragarri.



Zortzi gune dituzte sortzaileek nobedadeak aurkezteko.

Eman zure botoa udako argazki lehiaketan

Irailaren 17tik 30era

UDA KO 4. ARGAZKI LEHIAKETA

anboto
komunikabideak

Bozkatu www.anboto.org webgunean

ANTOLATZAILEA **anboto**
komunikabideak

LAGUNTZAILEAK

EROSKI bidaiak
Auzotatu! Egia lagun

EROSKI
Abadiño Zurekin

eiaia

EROSKI
Abadiño Zurekin



'Haiek Naiz'

KALE ANTZERKIA
BERRIZ :: Irailak 21

Rojo Telonen ikuskizun berria

Clown eta zirkua uztartzen ditu bere obretan Rojo Telon taldeak. Hiru emakume dira protagonistak, bihotz taupada berberak dituzten hiru gorputz, eurek azaltzen duten bezala. "Bestelakoa naiz, baina ez ezberdina. Nortzuk gara? Amankomunean zerbait duten emakumeak". 18:00etan hasiko da ikuskizuna, Olakueta plazan.

Irailaren 21ean

DURANGO deialdia
'Berdetxe, Green Mobility Forum'. Aurkezpena, 10:00etan; 'Timon proiektua' Deustuko unibertsitatearen eskutik, 10:10ean; 'Aparka: bizikleta publiko eta pribatuentzako sistema ziur eta konektatua' Emaus Bilboren eskutik, 10:40ean; 'Autoa partekatzen mugikortasun iraunkorraren alde', 11:10ean; kafea, 11:40ean; 'Ibilgailu alternatiboa' Gauraren eskutik, 12:15ean; 'Garraio bakoitzak bere energia' EVERen eskutik, 12:45ean; Zalantzak Argitzeko mahai-ingurua mugikortasun eta logistika klusterragaz, 13:15ean; agurra, 13:50ean, Elkartegian.


ELORRIO deialdia
'Mugikortasun astea'. Bide heziketa, 10:00etan, Buskantza kalean.

ELORRIO deialdia
'Mugikortasun astea'. Elorrioko mugikortasun plana, 18:00etan, Iturrin.

DURANGO musika
'Udako Txiringitue' 18' ekimena. Barrakiller Selekta eta lagunak, 17:00etan, Sorginolan.

DURANGO hitzaldia
Venezuelari buruzko hitzaldia. 'Zer gertatzen da Venezuelan? Krisi ekonomikoa, emigrazioa eta prozesu konstituentea' Pascualina Curcio, Ilenia Medina eta Olga Alvarezen eskutik, 18:00etan, udal euskaltegian.

IURRETA deialdia
Pentsioei buruzko hitzaldia, 18:30ean, Ibarretxe kultur etxean.



DURANGO emanaldia
'Jakinduriek mundue erreko dau' zientzia eta bertsolaritza uztartzen dituen saioa, 19:00etan, Plateruenean.

ZALDIBAR deialdia
Bertso afaria Zaldibarren Jon Maia eta Maddalen Arzallusegaz, 21:00etan, Goierri auzo-etxean.

DURANGO kirola
Euskal Kopa, gizonezkoen azken fasea, 20:45ean, Landakon.

ELORRIO antzerkia
'Oxido' Pez Limboren antzezlana, 20:30ean, Arriolan.

Irailaren 22an

ZORNOTZA festa
XVIII Txistu eguna, 17:00etan.

OTXANDIO bisita gidatua
'Bittor Kapanaga euskararen jatorria, euskal sena ekintzailea' doako bisita gidatua, 11:00etan, udaletxe aurrean hasita

ELORRIO deialdia
'Mugikortasun astea'. Bizikleta martxa, 10:30ean, Buskantz kalean.

ELORRIO deialdia
'Mugikortasun astea'. Kar pista, 11:00etan, Buskantz kalean.

ELORRIO deialdia
'Mugikortasun astea'. Eskalada horma eta tirolina, 12:00etan, Buskantz kalean.

ELORRIO deialdia
'Mugikortasun astea'. Egurrezko jolasak eta bizikleta konpontzeko tailerra, 18:00etan, Buskantz kalean.



Zorroztarri

ERAKUSKETA
IURRETA :: Irailak 24-28

Zigor Merodioren eskulturei bertsoak jarri dizkiete Yon Troitiño eta Alaitz Areitio iurretarrak. Areitioek Bretoniako Rennes espetxean idatzitako bertsoak dira; argazkiak ere egongo dira ikusgai Ibarretxe kultur etxean.

ANBOTOk agendan ezer iragarri gura baduzu, idatzi kultura@anboto.org helbidera edo deitu **946 232 523** telefonora, eguazten eguerdia baino lehen.

Oxido antzezlana, Arriolan

ANTZERKIA • Pertsona bereziek ezohiko egoeren aurrean bizi-tzaren absurdoari nola erantzuten dioten erakusten du Oxido antzezlana. Hiru egoera, hiru espazio ezberdinetan. Umore garratzaren bidez, ikuslegoaren konplizitatea eta hurbiltasuna topatuko dituzte antzezleek. Emanaldia gaur izango da, irailak 21, 20:30ean, Elorrioko Arriolan.



Luhartzen erromeria Goienkaleko jaietan

JAIK I Atzotik jai giroan murgilduta dabilta Goienkaleko jaietan. Jaien barruan, Luhartzek erromeria eskainiko du gaur, 22:30ean. Zapatuan, paella txapelketa hasiko dute eguerdian, eta arratsaldean mus eta igel txapelketak egingo dituzte, besteak beste. Gauean, berriz, Eibarband taldearen eskutik 80ko eta 90eko hamarkadetako musikak entzuteko aukera egongo da.

Domekarako ere hainbat ekintza antolatatu dituzte. 13:00etan tortilla txapelketa egongo da, eta 17:30ean Angelman sindromearen Durangoko elkartearen aldeko zumba solidarioa. Horrez gain, Berbarok jolasak antolatuko ditu.

Jaiet amaiera astelehenean emango diete, irailak 24, trikitariekin.

Barikua

Sugarri fanfarrea
20:00etan.

Luhartz 22:30ean.

Zapatua

Paella txapelketa,
13:00etan.

Batukada 19:30ean.

Eibarband, 22:00etan.

Domeka

Zumba solidarioa
17:30ean.

Berbarok jolasak
17:30ean.

Astelehena

Pintxo-txori-jaiak
19:30ean.

Irailaren 23an

DURANGO kirola
Euskal Kopa, gizonetzkoen azken fasea, 12:00etan, Landakon.

ELORRIO dantza
MiraMiró haurrentzako dantzak, 17:00etan, Arriolan.

DURANGO antzerkia
'Lur' Xake produkzioaren antzezlana berria, 18:00etan, San Agustin kulturgunean.

Irailaren 27an

DURANGO musika
'Ostegunero Jan and Jai'. Jkin Alonso dj set, 22:00etan, Txoria Nuen Maiten.

Irailaren 28an

ABADIÑO deialdia
Abadiñoko VII. Baserri Eguna, Durangaldeko eta Bizkaiko emakume baserritarrek eginiko produktuekin pintxo dastaketa, 17:30ean, Traña plazan.

Irailaren 30ean

ABADIÑO deialdia
Abadiñoko VII. Baserri Eguna. III. Transhumantzia ibilbidea egingo da Patxi Solanaren ardiekin eta Hamaika Izpi enpresaren hiru pottokagaz, 10:00etan; **munduko herri kirolak eta haur tailerrak,** 12:30ean, Traña plazan.

Irailaren agenda



19

"ODOL EMOTEA"

16:30-21:00 Odol emotea

22

"AITTE SAN MIGEL JAI BATZORDEA SAN MIGEL JAIK"

8:30 Iurretako IX. Mendi martxa

12:00 Marmitako txapelketa

14:30 Marmitako aurkezpena

17:00 Pirritx, Porrotx eta Marimotos

19:00 Asto proba gonbitez

23

"AITTE SAN MIGEL JAI BATZORDEA SAN MIGEL JAIK"

09:00 Ahari Iurreta Zikloturista martxa

11:00 Informazio puntua "Beldur barik gunea"

11:00 "La otra mirada" gunea

11:00 "Iurretako IV Herri lasterketa familiarra

Adinaren arabera zirkuitu desberdinak antolatuko dira

13:00 Asto probak gonbitez



Kine Rally lehiaketan 500 euro banatuko dira saritan; apuntatzeko, kinezinekluba@gmail.com-era

Irailaren 28tik 30era

ZORNOTZA zinema
'Kine Rally' film laburren lehiaketa, Zornotza Aretoan.

Irail eta urriaren zehar

DURANGO erakusketa
'Kingfisher' erakusketa Unai Zocoren lanekin.

Urriaren 21era arte

ELORRIO deialdia
'Mugikortasun astea'. Egurrezko jolasak eta bizikleta konpontzeko tailerra, 18:00etan, Buskantz kalean.

Zinema

:: Durango ZUGAZA

• **Johnny English. De Nuevo En Acción**

barikua 21: 19:30/22:00

zapateria 22: 18:00/20:15/22:30

domeka 23: 17:00/19:15/21:15

astelehena 24: 18:30/21:00

martitzena 25: 20:00

eguztiena 26: 20:00

• **Enamorado De Mi Mujer**

barikua 21: 19:30/22:00

zapateria 22: 18:00/20:15/22:30

domeka 23: 17:00/19:15/21:15

astelehena 24: 18:30/21:00

martitzena 25: 20:00

eguztiena 26: 20:00

• **Una Casa, La Familia y Un Milagro**

barikua 21: 19:30/22:00

zapateria 22: 18:00/20:15/22:30

domeka 23: 17:00/19:15/21:15

astelehena 24: 18:30/21:00

martitzena 25: 20:00

eguztiena 26: 20:00

• **¡Al Aire Patos!**

zapateria 22: 18:00

domeka 23: 17:00

:: Elorrio ARRIOLA

• **Con Amor, Simon**

zapateria 22: 22:00

domeka 23: 20:00

astelehena 24: 20:00

:: Zornotza ARETOA

• **Predator**

barikua 21: 20:15

zapateria 22: 19:30/22:00

domeka 23: 20:00

astelehena 24: 20:15

• **Los Increíbles 2**

zapateria 22: 17:00

domeka 23: 17:00



Lidia Cañete Jaio
Zaldibarko arku taldea
Durango | 1969

“Arku-tiroan ez dago alderik gizonen eta emakumeen artean; kirola bateratu beharko litzateke”

Lidia Cañetek hainbat bider irabazi ditu Euskadiko eta Bizkaiko arku-tiro txapelketak. Bere esperientzia zabalean bizitakotik dio gizonen eta emakumeen artean ez dagoela alderik eta kirola bateratu egin beharko litzatekeela

ARKU TIRAKETA • JOSEBA DERTEANO
Euskadiko arku-tiroan erreferenteetako bat eta Euskadiko federazioko juntako kidea da Cañete. Baina bere esperientzia, arrakasta eta posizioa ez dira nahikoa ilogikoak iruditzen zaizkion egoerak aldatzeko. Bitartean, goi mailan lehiatzen jarraitzen du. Asteburuan Euskadiko klubaren arteko txapelketan aritu da Zaldibar Arku taldeagaz.

Zelan joan da txapelketa?

Modalitate kurbatuan parte hartu eta seigarren amaitu dugu. Ezin izan dugu orain urte bi lortutako hirugarren postua berdindu. Taldekide biek ez dute nahi adina entrenatzeko modurik izan eta igarri egiten da. Talde irabazlea kenduta, gainerako denak oso pareko ibili

gara, baina, azkenean, ezin izan dugu aurrerago amaitu. Klubeko beste taldeak, modalitate tradizionalan, zortzigarren amaitu zuen. Kasu horretan, emaitza ona da. Ez dira txapelketetan asko ibili eta esperientzia hartzeko balio izango die. Balorazio positiboa egiten dute. Bestela, zelan doa denboraldia? Espainiako txapelketagaz ez zinen oso gustura geratu...

“

Klubaren arteko Euskadiko Txapelketan ezin izan dugu orain urte bi lortutako hirugarren postua berdindu”

Ez. Ez zitzaidan ondo irten. Espainiako Txapelketan hiru bider parte hartu dut eta azken hau, Santanderrekoa, aire libreko lehenengoa izan da. Pena izan da, badakit-eta zertxobait hobeto egin nezakeena. **Zer gertatu zitzaizun?**

Baliteke urduritasunagatik izatea. Datorren urtean beterranoen mailara igaroko naiz, eta, beraz, azken aukeretakoa bat nuen. Aire librean egindako saioak konplikatuak dira, faktore asko sartzen direlako jokoan: argitasuna, haizea...

Euskadikoan arantza hori atera zenuen.

Euskadikoan bai, gusturago ibili nintzen. Espainiakoan baino 30 puntu gehiago lortu nituen baldintza berdinetan. Alde handia da. Horrez gainera, emakumeei gertatzen zaigun kontu bat azalerratu gura nuke. Bizkaiko txapelketan gertatzen da eta Euskadikoan gertatu daiteke, gutxi etortzen badira. Lau baino gutxiago batzen bagara, ez dugu kanporaketarik izaten. Beraz, demagun, hiru bakarrik gaudela. Gure geziak jaurtiko ditugu, baina ez da Euskadiko edo Bizkaiko txapelketan izendatuko.

Zer irtenbide ikusten diozu?

Arku-tiroan ez dago alderik gizonen eta emakumeen artean eta kirola bateratu egin beharko litzatekeela uste dut. Denbora asko daramat horren alde borrokan, baina ez dute entzun ere egin gura. Gutxienez, lehen azaldu dudako egoera konkretu horietan, txapel-

ketara lau baino gutxiago azaldu direnetan, gizonekin batera aritu beharko ginatke.

Gizonek eta emakumeek lortzen duten puntuazioan badago alderik?

Ez, eta batzuetan emakumeenak handiagoak dira.

Emaidazu adibide bat.

Begira, Euskadiko Txapelketako lehenengo tiraldian Mirene Etxebarriak 620 puntu lortu zituen, nik 617 puntu eta gizonetako onenak 600 puntu. Baldintza berdinetan, 70 metrora. Hasierako tiraldi horretatik irtetzen dira osteko kanporaketak. Hainbat bider gertatu da berdina.

Noren esku dago hori aldatzea? Espainiako federazioaren esku?

Bai, eta beste federazioen esku. Bizkaikoan saiatu nintzen, baina ezin. Kasu horretan, emakume batzuegatik izan zen. Batzuek ez zuten gura eta ezetz dioen bakar bat badago, ez dute aldatzen... Lelokeria iruditzen zait, baina tira.

Zergatik ez zuten gura?

Ez dakit, ba. Eurei galdetu behar.

Zelakoa da arku-tiroaren egoera Euskal Herrian?

“

Niretzat arku-tiroa osasuna da. Tiro gunean sartzean, bizitzako arazoak alde batera utzi behar dituzu”

Gizonen eta emakumeen artean 1.000 federatu inguru daude, baina askok ez dute txapelketetan parte hartzen.

Zelakoa da Zaldibar Arku Taldearen egoera?

Ona. Gaur egun, 20 bat lagun gabilta. Eskola kirolean ere murgildu gara. Udalak lokal eder bat uzten digu entrenatzeko. Egunko 24 orduetan erabilgarri dugu gainera. Itzela da.

Euskadiko eta Bizkaiko txapelketak makina bat bider irabazi dituzu. Zer geratzen zaizu lortzeko? Non aurkitzen duzu motibazioa?

Arku-tiroan kontzentrazio handia behar da, burua libre izan behar duzu. Tiro gunean sartzen zarenean, bizitzako arazo guztiak alde batera utzi behar dituzu, bestela ez zara ondo arituko. Niretzat arku-tiroa osasuna da. Osasuna ematen dit eta behar dut. Niretzat bakarrik den unea da.

Arku-tiroa kirol metodikoa da?

Dena beti berdin egitea garrantzitsua da. Gorputzaren kokapena, mugimenduak, arnasketa... Begira, orain hiru urte alboka musika instrumentua jotzen hasi nintzen. Modu jakin batean errepikatzen den arnasketa lantzea eskatzen du. Segundo batzuetan arnasa hartu barik egoten ikasten da. Horrek arku-tirorako lagundu dit eta gomendio hori eman gura nuke: haize-instrumentuak jotzeak lagundu egiten du arku-tiroan. Niri behintzat lagundu dit.

Mendibeltzek nesken taldea sortu du eta Sasikoarena desagertu egin da

Elorrioko Buskantza taldea itzuli egin da, urtebeteren ostean

ARETO FUTBOLA • JOSEBA DERTEANO

Bizkaian emakumeen areto-futboleko liga berri bati ekingo diote asteburuan eta eskualdeak hiru ordezkari izango ditu: Durangoko Mendibeltz, Elorrioko Buskantza eta Zornotzako Beti Gol. Mendibeltz hutsetik sortu dute, Elorrioko Buskantza itzuli egingo da urtebeteko parentesiaren ostean eta Beti Golek urte batzuk daramatza gerra ematen. Albiste txar bat ere badago: Sasikoak ezin izan du taldea osatzeko adina neska batu eta desagertu egin da.

Mendibeltz talde berria sortzeko, jokalarik bila ibili da hilabete

batzuetan eta, azkenean, 12 lagun batu dituzte. Jokalari bi futboleko aritutakoak dira, Abadiñon eta Ezkurdin, hain zuzen. Gainerako jokalarik denek lehenengoz probatuko dute futbola edo areto-futbola. Ligako estreinaldia atzeratu egin behar izan dute eta datorren eguaztenean izango da, 20:30ean, Landako kiroldegian, Leioa Ibaraki taldearen aurka.

Mendibeltzeko jokalaririk gehienak futboleko edo areto futboleko inoiz aritu gabekoak dira

Beti Gol sortu zenetik hona, gora egin duen taldea da eta urterik urtera emaitza hobekiak lortzen ari da. Zornotzako taldeak ere etxean hasiko du denboraldia. Zapatuan izango da, 18:00etan, Bilboko Stilo Kirol Klubaren aurka.

Elorrioko Buskantza Etxelan Inmobiliariak taldeak ilusioz ekingo dio denboraldiari. Emakumeen areto-futbola bueltan da Elorrioko urtebeteko hutsunaren ostean.

Sasikoa azken unera arte saiatu da taldea osatzen. Martitzenean, klubeko ordezkariak lagun artean futboleko aritzen diren neska talde batez batu ziren, baina ezin izan zituzten konbentzitu. Datorren urtean taldea berreskuratzen saiatuko dira.



Mendibeltz areto-futbol taldea osatzen duten jokalarik batzuk Landako eskolan, asteleheneko entrenamendua hasi aurretik.



DRTren errugbi eskolako kideen argazkia.

Errugbi eskola indartuta abiatu du denboraldia DRTk

100 umetik 160ra handitu dute Durangoko errugbi eskolaren plaza kopurua 2018-2019 denboraldirako

ERRUGBIA • J.G./J.D.

DRTk errugbi eskola indartzeko apustua egin du denboraldi honetan. 100etik 160 plaza izatera pasatu da taldea. Jose Ignacio Azurmendi taldearen arduradunak azaldu duenez, iaz 20 ume taldetik kanpo gelditu ziren, lekurik barik. Aurten, taldea haztea erabaki dute. Belaunaldi bakoitzagaz talde bakoitza sortzea dute helburu, orain arte belaunaldi bi elkartzeko bazituzten ere. Getxok eta Bilbok horrela funtzionatzen dute dagoeneko. Talde bakoitzean 20 plaza eskainiko dituzte. Oraindik, plaza batzuk libre daude (2012an jaiotako taldean, 11; 2011koenean, 3; 2010ekoena beteta dago; 2009koenean, 9; 2008koenean, 4;

2007koenean, 5; 2006koenean, 4; eta 2005ekoenean, 10. Bestalde, talde bakoitzak hiruzpalau monitore izango ditu, eta baita delegatuak ere. Guztira, 40-45 pertsona jardungo dute taldeetako arduradun.



URIBARRI BARRUTIETA

Barrutietaren itzulera

Uribarri Barrutieta DRTa itzuli da. Asteburuan lagunarteko partidua jokatuko du Durangon, Getxo bere talde ohiaren aurka. Getxo mailaz jaitsi da eta durangarren mailan jardungo du. "Lagunekin eta etxeko jendeagaz jokatuz, errugbian gozatu egin gura dut", azaldu du Barrutietak. Aurten beste era bateko ingurua bilatzen du. Hala ere, taldeagaz zein bere kontura, beti bezain gogor entrenatzen jarraituko duela dio.

Asteko kirolaria



JOSE GABRIEL RUIZ URDA

Zornotza, 1974

"Ez nuen uste hain aurrean helduko nintzenik, baina indartsu ikusi nuen neure burua"

Bocineros Deiadar Xtreme 200 kilometroko proba bigarren amaitu du Jose Gabriel Ruizek

ondo neurtuz, indartsu heldu zen helmugara, bigarren tokian.

Zelan joan zen lasterketa?

Aurretik Ehun Milak eginak nituen eta badut esperientzia, baina proba hau luzeagoa zen, inoiz aritu naizen luzeena. Horregatik, suabe hasi nintzen. Ez nituen indarrak arinegi xahutu nahi. 130. kilometrotik aurrera gehitxoago sakatu nuen, ondo sentitzen nintzen eta.

Zure lanagaz gustura geratu zinen?

Ez nuen uste hain aurrean helduko nintzenik, baina indartsu ikusi nuen neure burua. Azkeneruntz une batzuetan erlaxatu egin nintzen apur bat, bigarren postuagaz emozionatuta nindoalako eta atzekoei alde dezente ateratzen nielako. Azken kilometroak berriro korrika egin nituen. Modu horretara sartu gura nuen helmugan.

Bocineros Deiadar Xtreme proba aurreneko antolatutako dute. Zer iruditu zaizu ibilbidea?

Lehenengo zatia, Balmasedarainokoa, ez zitzaidan oso gogorra iruditu. Bigarren zatian, ordea, 89. kilometrotik aurrera, ibilbidea gogortu egin zen eta ondo etorri zitzaidan desnibel handiko entrenamenduak egitea. Igoeretan ondo moldatzen naiz. Gainera, bero handia egin zuen, beroagaz entre-

natzera ohituta nago eta hori ere nire mesederako izan zen. Aldeko beste faktore bat ibilbideko hainbat zati ondo ezagutzen nituela izan zen. Horrek ere laguntzen du indarrak neurtzen.

Zer asmo duzu aurrera begira? Beste lasterketarik bai buruan?

Seguruenik irailaren 30ean Aramotz lasterketan parte hartuko dut, herrikoa delako eta Zornotza Mendi Taldeak antolatzen duela. Ondo errekupekatzen banaiz, behinik behin. Inguru haietatik entrenatzen naiz, gainera. Baina erlaxatzeko eta ondo pasatzeko lasterketa izango da. 30 kilometrokoa da eta lasaiago hartzeko asmoa dut. Disfrutzeko zerbait izan dadila gura dut.

Inoiz egin duen probarik luzeena da, baina Zornotza Mendi Taldeko kideak horrelakoetara ohituta balego lez jardun zuen. Indarrak

Retabet Bilbao Basketek eta RPK Araskik Euskal Kopako titulua defendatuko dute

Iraileko azken asteburu bietan jokatuko dute Euskal Kopa, Landako kiroldegian

SASKIBALOA • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Iaz Euskal Kopa berreskuratu zuten urte batzuetako hutsunearen ostean eta indartsu ekin zion aldi berriari. Aurten ere, Euskal Kopa hartuko du Tabirako saskibaloitaldearen egoitzak. "Durango saskibaloiz bustiko da eta beste behin ere saskibaloien gailurra izango da", esan du Aitziber Irigoras alkateak.

Gizonezkoen finala irailaren 23an jokatuko da, 12:00etan, eta Retabet Bilbao Basketek titulua defendatzeko aukera izango du. Hala ere, aurreko egunean Saenz Horeca Araberriren aurka jokatu beharko du finalurrekoa.

Emakumezkoen finala hilaren 30ean jokatuko da, 12:00etan, eta RPK Araskik iazko garaipena lortzeko aukera izango du. Hala ere, gizonezkoek lez, aurreko egunean finalurrekoa jokatu beharko dute, irailaren 29an.

Partidu guztietako sarrerak doakoak izango dira, eta herritarrei dei egin diete partiduetara joateko, zelaia zalez betetzeko. Sarrerak Txukun tabernan hartu ahal izango dira.



Astlehenean aurkeztu zuten Euskal Kopa.



Jose Luis Romero

Munduko txapelketan lau domina irabazi ditu Jose Luis Romero atleta durangarrak

ATLETISMOA • J.D.

Abiadura probetan munduko onenen parean dago Jose Luis Romero. Horixe erakutsi zuen joan zen asteburuan Malagan jokatu zen master mailako munduko txapelketan. 200 eta 400 metroko probetan —Master 70 kategorian— brontzezko domina irabazi zuen atleta durangarrak. Distantzia laburretarako dohain bikainak dituela erakutsi zuen, beste behin. Hori gutxi balitz, Durangaldea Running-eko atletak zilarrezko domina jantzi zuen 100 metroko erreleboko proban eta brontzezkoa 400 metroko errelebokoan. Beraz, lau bider igo da podiumera Malagako munduko txapelketan.

Adituaren txokoa

Oihana Azkorbebeitia Urizar
Mendiko lasterketa



Munduko txapelketa

Eskozian jokatu da aurten mendiko lasterketen munduko txapelketa, Kinlochlehen herrian. 800 bat biztanleko herri txikia da, baina 1.200 korrikalaritik gora hartu zituen ostegunetik igandera. Asteburu luzean, beraz, korrikalarien kopuruak herritarrena gainditu zuen. Trail munduaren izarrik distiratsuenak bertan zeuden, eta hiru modalitate aukeran: kilometro bertikala, ultra traila (52 km) eta Sky (29 km).

Osteguneko kilometro bertikala infernua izan zen. Euria, haizea eta hotza nagusi. Lasterketa amaituta, korrikalari askok hipotermiak jota jaitsi behar izan zuten mendian behera. Remi Bonnet suitzarra nagusitu zen mutiletan eta Laura Orgue katalana nesketan. Ultra trailean ere eguraldi makurra egin zuen eta laburtu egin behar izan zuten ibilbidea. Jonathan Albon britainiarra izan zen lehen mutila helmugaratzen, eta Ragna Debats holandarra lehen neska. Larunbatean gure txanda izan zen, Sky modalitatekoona, eta zorte itzela izan genuen eguraldiari dagokionez. Lasterketa osorik egin ahal izan genuen, eta bate-re busti barik. Hori bai, ibilbidea oso lokaztuta zegoen, baina ni neu pozarren ibili nintzen plisti-plasta. Kilian Jornet katalanak irabazi zuen mutiletan eta Tove Alexandersson suediarrek nesketan. Igandean laugarren lasterketa bat jokatu zen, Extreme modalitatekoa (52 kilometrokoa hau ere). Laugarren hau ez zen munduko txapelketa, baina munduko koparako puntuagarria zen. Hau ere laburtu egin behar izan zuten eguraldi txarragatik, eta hau ere Kilian Jornetek irabazi zuen. Bitik bi, eta jarraian gainera. Bejondeio! Nesketan Hillary Gerardi estatubatuarra nagusitu zen.

MENDI LASTERKETA • JOSEBA DERTEANO

Asto Trail proba ez dago edonorentzat eginda. 29 kilometrotan 1.660 metroko desnibel positiboari aurre egin behar diote parte-hartzaileek. Probaren izenak gogortasun horri egiten dio erreferentzia, hain zuzen. Baina gauza bat da ibilbidea aldadapsua izatea eta beste bat elurra mara-mara ari duela egin behar izatea. Horixe gertatu zen orain urte bi, proba estreinatu zuten urtean. Horregatik, aurtengo bigarren aldiko aldaketa nagusia data aldaketa da. Azaroan beharrez, domeka honetan egingo dute, korrikalariak eguraldi atseginagoa izango duten esperantzaz.

Garaiko Triatloi Taldeak antolatutako lasterketa 09:00etan hasiko da, Garaiko plazan. Izen-ematea

Asto Trail, aldapa gogorak gustuko dituztenentzako lasterketa, domekan

Lehenengo aldian euria eta elurra egin zuenez, aurten data aurreratzea erabaki dute Garaiko Triatloi Taldeko antolatzaileek; azaroan beharrez, domeka honetan egingo dute

egunean bertan ere egin daiteke, proba hasi baino ordubete lehenagotik (13 euro). Izen-ematea aurretik egitea merkeagoa da: 10 euro.

Lasterketako sariak

Oizerako igoera izango da ibilbideko igoeretako bat, eta hornidurapuntu bi egongo dira indarrak hartzeko. Sariak dagokienez, irabazleak 150 euro jasoko ditu. Bigarrenentzat eta hirugarrenentzat 100 eta 60 euro daude, hurrenez hurren.



Mendian ibiltzera ohituta daudenentzako proba da. Gorka Larrinaga.

CERAMICAS
MACOBER
MATERIAL DE CONSTRUCCION
Chimeneas
ERAIKUNTZAKO MATERIALA
ZERAMIKA ETA GRESA
Eitua industr., 66 BERRIZ - Tel.: 946 827 890
Tronperri kalea, 1 DURANGO - Tel.: 946 811 727

pedro
juan
J A T E T X E A
SAN ANTONIO, 1.
48.240 BERRIZ BIZKAIA
TEL: 94.682.62.46

hitz artekalea 23, durango
946 810 776
liburudenda info@hitzliburudenda.com
#salduenak

JENIS JOPLIN 1^{er}
Uxue Alberdi Susa

GEREZI GARAIA 2^{er}
Belatz Txalaparta

AZALA ERRE 3^{er}
Danele Sarriugarte Elkar



Atera etekina Anbotoren Lagun txartelari!

Gozatu abantaila eta deskontu hauetaz:

3D PRINT COLOR

- %10 tinta eta toner karga bakoitzaren gaiteretan.
- %5 tinta eta toner karga bakoitzaren digigialeretan.

EPOCA SUKALDEAK

- %10 sukaldaren alizitekek dituzteretan.

EUREKA! ZIENTZIA MUSEOA

- %10 sarearen deskontua useko eta planetarioko sarearen orokorrean babilaz eta bietarako baliotuen sarearen konbinatuan ere.

GIMNASIO ZIRKIN

- Bzikite berriei matrikulazioa doan.
- Bzikite triaerel 1.600ko sarrerak doan.

HITZ LIBURU-DENDA

- %10 euskarazko liburuetan.

HONTZAEXTREM ABENTURA PARKEA

- %15 sarean.

IURRETA KOPISTEGIA

- %5 eskola eta bulego materialean.
- %5 musika, opari eta liburuetan.
- Ez da bategarria ez beste lekutan ezta batzuekin.

KIROL ERROTA GIMNASIOA

- Bzikite berriei matrikulazioa doan.

LANDAKO OPTIKA

- %15 eguzkiak, kontaktak eta audio logian, ikusmen urritasunarekin erabiltzeko lenteetan.

MANCISIDOR 1866 BITXI-DENDA

- %15 deskontua 100€-tik gorako erosketetan.
- %10 deskontua 100€-tik gorako erosketetan.

NATURALKI BELARDENDA-EKODENDA

- %10 deskontua kosmetika ekologikoko produktuetan.
- %5 deskontua Colnatur Complex kolageno-magnesio produktuan.

OPEN KLUB

- %20 klastua matrikulan. Ez da bateragarria beste eskaintza batzuekin.

PLATERUENA KAFE ANTZOKIA

- %10 deskontua kafean leihatilan erabiltzeko erabiltzeko kitaldian leihatilan erositako bigarren sarrera doan.

URRIKE LIBURU-DENDA

- %50 papergintzan.
- %10 papergintzan.



HITZ LIBURU-DENDA
-%10 euskarazko liburuetan.



IURRETA KOPISTEGIA
-%10 eskola eta bulego materialean.
-%5 musika, opari eta liburuetan.



URRIKE LIBURU-DENDA
-%5 liburuetan.
-%10 papergintzan.



Anbotoren lagunak

Lekuan lekuko lagunak

www.anboto.org · lagunak@anboto.org · 946 816 558

 Anboto Komunikabideak  @anboto  @anbotokomunikabideak



Eguazteneko 17:00ak arte jasotako iragarkiak bariku horretako alean argitaratuko ditugu. Beranduago jasotakoak hurrengo alean

HIGIEZINAK
TEKNOLOGIA
LANA/NEGOZIOAK
DENETARIK
IBILGAILUAK
HARREMANAK
AISIA/KIROLA
FAMILIA/ETXEA

NORBANAKOEN IRAGARKIAK

Interneten eta paperean, doan: Partikularrentzako. Erregistratu www.anboto.iragakilaburak.com webgunean eta jarri zure iragarkia (paperean argitaratu aukerari eman behar zaio) edo bidali mezua: anboto@anboto.org helbidera. Nahiago baduzu deitu 94-623 25 23 telefono zenbakira.

Paperean, ordainduta: Enpresentzako. Iragarki laburretatik bereiztua eta lauki batean nabarmenduak. Hainbat prezio eta neurri aukeran. Kontsultatu 94-621 79 02 telefonoan.

Higiezinak

ETXEBIZITZAK

ETXEBIZITZAK ERRENTAN EMAN

Durango. Logela bakarreko apartamentua alokatzen da Durangon. Etxe eguzkitsua Alde Zaharretik gertu, bikote batentzako egokia. 525€

ETXEBIZITZAK ERRENTAN HARTU

Durango. Durangon pisu bila gabiltzan bi neska eta mutil bat gara. Hirurok lan egiten dugu eta kurtso honetarako izango litzateke. Inork 3 logelako pisua badu alokatzeko, eskertuko genuke harremanetan jarriko balitz. Hona hemen telefonoa: 638908610.

Durango. Durangon, San Fausto inguruan, pisua alokagai. Tel.: 699-51 65 32 (Jorge)

Durango. Kaixo, hiru neska gazte gara eta Durangon alokatzeko pisu bila gabiltza. Laguntzerik bazenu, deitu telefono honetara: 630866974 Mila mila esker!

Lana Formakuntza

LAN ESKARIAK

LAN ESKARIAK ETXEO LANAK

Lan bila nabil garbiketari. Lan bila nabil garbiketari zein umeak zaintzen. Orduka lan egiteko prest. Tel.: 674-77 48 53

LAN ESKARIAK PERTSONAK ZAINDU

Umeak zaintzeko prest. Irailetik aurrera, umeak zaintzeko lan bila nabil, ahal bada Durangaldean. Urte askotako esperientzia daukat umeekin. Informazio gehiago nahi izanez gero, deitu 644411174 telefono zenbakira. Irantzu

Lan bila nabil pertsonak zaintzen. Kanpoko langilea lan bila dabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen. Baita etxeko lanak egiten ere. Lanaldi osoan edo orduka lan egiteko prest. Eskarmentua eta erreferentziak ditut. Berehala lanean hasteko prest. Tel.: 658-76 08 94

Pertsona nagusiak zaintzen ditut. Emakume arduratsua lan bila dabil pertsona nagusiak zaintzen. Barneko zein kanpoko langilea, orduka lan egiteko prest. Tel.:698-73 33 56

Pertsona nagusiak zaintzen ditut. Emakume arduratsua lan bila dabil pertsona nagusiak zaintzen. Barneko, kanpoko edo orduka langile moduan lan egiteko prest. Tel.:632-07 10 13

Pertsona nagusiak zaintzen ditut. Barneko, kanpoko zein orduka langile arduratsua lan bila dabil pertsona nagusiak zaintzen.

Tel.: 643-13 01 20

Pertsona nagusiak eta umeak zaintzen lan bila nabil. Lan bila nabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen. Tel.: 674-77 48 53

Pertsona nagusiak zaintzen ditut. Lan bila nabil barneko, kanpoko edo orduka langile moduan. Tel.: 688-66 10 45

Pertsona nagusiak zaintzen ditut. Lan bila nabil pertsona nagusiak zaintzen. Baita garbiketari lanetan edo lorezain moduan ere. Gidabaimena daukat eta berehala lanean hasteko prest nago. Tel.: 632-72 92 31

Pertsona nagusiak zaintzen ditut. Lan bila nabil, barneko edo kanpoko langile moduan. Umeak zaintzeko ere prest nago. Tel.: 631-70 05 73

Pertsona nagusiak zaintzen ditut. Lan bila nabil pertsona nagusiak zaintzen, barneko edo orduka langile moduan. Tel.: 610-90 35 48

Pertsona nagusiak zaintzen lan bila nabil. Lan bila nabil barneko langile moduan pertsona nagusiak zaintzen. Tel.: 643-40 11 87

Pertsona nagusiak eta umeak zaintzen ditut. Lan bila nabil pertsona nagusiak eta umeak zaintzen. Baita garbiketari lanetan ere. Barneko, gaueko edo orduka langilea. Tel.: 631-89 17 09

Pertsona nagusiak eta umeak zaintzen ditut. Lan bila nabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen. Baita garbiketari lanetan ere. Barneko zein kanpoko langilea, gauez, asteburuetan, orduka, lanaldi osoan edo erdian lan egiteko prest. Berehala lanean hasteko prest. Tel.: 612-20 80 66

Pertsona nagusiak zaintzen ditut. Lan bila nabil pertsona nagusiak zaintzen. Barneko zein kanpoko langile moduan. Tel.:685-03 69 02

Lan bila nabil pertsonak zaintzen. Lan bila nabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen. Baita garbiketari lanetan ere. Kanpoko zein barneko langilea, lanaldi osoan, erdian, orduka... lan egiteko prest. Tel.:632-26 17 94

Pertsona nagusiak zaintzen ditut. Lan bila nabil pertsona nagusiak zaintzen, barneko langile moduan. Eskarmentua eta erreferentziak ditut. Tel.: 632-89 05 16

Pertsona nagusiak zaintzen ditut. Lan bila nabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen. Baita garbiketari lanetan ere. Barneko zein kanpoko langilea orduka lan egiteko prest. Tel.:698-73 33 56

Pertsona nagusiak zaintzen ditut.

Pertsona arduratsua lan bila dabil pertsona nagusiak zaintzen, barneko zein kanpoko langile moduan. Eskarmentua eta erreferentziak ditut. Tel.:632-32 66 79

Lan bila nabil pertsonak zaintzen. Lan bila nabil pertsona nagusiak eta umeak zaintzen. Baita garbiketari lanetan ere. Barneko, kanpoko zein orduka langilea. Tel.:643-13 01 35

Pertsona nagusiak zaintzen ditut. Lan bila nabil astelehentik barikura bitartean kanpoko langile moduan pertsona nagusiak zaintzen. Tel.:674-77 48 53

Pertsona nagusiak eta umeak zaintzen ditut. Lan bila nabil pertsona nagusiak eta umeak zaintzen. Baita garbiketari lanetan ere. Barneko zein kanpoko langilea asteburuetan edo orduka lan egiteko prest. Tel.:643-13 01 20

Pertsona nagusiak zaintzen ditut. Lan bila nabil pertsona nagusiak zaintzen, baita garbiketari lanetan ere. Barneko, kanpoko, gaueko, asteburuetan edo orduka langilea. Tel.:612-42 06 78

Pertsona nagusiak zaintzen ditut. Pertsona arduratsua lan bila dabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen. Barneko, kanpoko zein gaueko langile moduan. Erreferentziak ditut. Tel.:612-24 53 26

Pertsona nagusiak zaintzen ditut. Lan bila nabil pertsona nagusiak zaintzen, barneko langile moduan. Eskarmentua eta erreferentziak ditut. Tel.:632-89 05 16

Pertsona nagusiak zaintzen ditut. Gizonezkoa lan bila dabil pertsona nagusiak zaintzen. Barneko zein kanpoko langilea orduka edo asteburuetan lan egiteko prest. Tel.: 632-03 47 00

Pertsona nagusiak zaintzen ditut. Lan bila nabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen. Baita garbiketari lanetan ere. Eskarmentua daukat. Kanpoko, barneko, asteburuetan, gaueko zein orduka langilea. Tel.: 632-72 50 54

Pertsona nagusiak zaintzen ditut. Eskarmentudun langilea lan bila dabil pertsona nagusiak zaintzen. Barneko, kanpoko, gaueko, asteburuetan zein orduka langilea. Tel.: 631-20 36 07

Pertsona nagusiak zaintzen ditut. Pertsona nagusiak zaintzen lan bila nabil. Tel.: 602-80 47 76

Pertsona nagusiak zaintzen ditut. Lan bila nabil orduka, kanpoko edo barneko langile moduan. Umeak eta nagusiak zaintzen. Pertsona dinamiko, arduratsua eta alai. Berehala hasteko prest. Tel.: 698-72 02 94

Pertsona nagusiak zaintzen ditut. Lan bila nabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen. Baita garbiketari lanetan ere. Gauez lan egiteko prest. Tel.: 632-83 16 10

Pertsona nagusiak zaintzen ditut. Lan bila nabil pertsona nagusiak zaintzen. Barneko, kanpoko edo orduka langile moduan. Tel.: 698-69 61 94

Pertsona nagusiak zaintzen ditut. Lan bila nabil pertsona nagusiak zaintzen edo garbiketari lanetan. Kanpoko, barneko, gaueko zein asteburuetan langilea. Lanaldi erdian edo osoan lan egiteko prest. Tel.: 612-42 06 78

Pertsona nagusiak eta umeak zaintzen ditut. Pertsona alai lan bila dabil nagusiak edo umeak zaintzen. Baita garbiketari lanetan ere. Barneko, kanpoko edo orduka langilea. Berehala lanean hasteko prest. Tel.: 698-72 01 94

Pertsona nagusiak zaintzen ditut. Lan bila nabil pertsona nagusiak zaintzen. Tabernetan lan egiteko prest ere banago. Orduka lan egiteko prest. Tel.: 612- 53 58 39

Lan bila nabil pertsonak zaintzen. Lan bila nabil pertsona nagusiak zaintzen, barneko edo orduka langile moduan. Tel.:683-55 93 63

Lan bila nabil pertsonak zaintzen. Lan bila nabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen. Baita garbiketari lanetan edo sukaldari laguntzaile moduan ere. Kanpoko langilea. Paperak ditut. Tel.: 674-49 61 13

Pertsona nagusiak zaintzen ditut. Lan bila nabil pertsona nagusiak zaintzen eta tabernetan lanean. Kanpoko langilea, gauez, asteburuetan lan egiteko prest. Tel.: 699-78 50 85

Pertsona nagusiak zaintzen ditut. Lan bila nabil pertsona nagusiak zaintzen barneko langile moduan. Eskarmentua eta erreferentziak ditut. Tel.: 632-89 05 16

LAN ESKAINTZAK

LAN ESKAINTZA

euskara teknikaria
administrazioan euskara teknikari lanetan aritzeko

Esatzten dugu:
Lizentziatura edo gradu-ikasketak izatea
4. hizkuntza-eskaintza izatea

Baloratuko dugu:
Administrazio orokorrean eskarmentua
Erabakiak hartzeko gaitasuna
Durangaldea ezagutzea

Curriculuma eta motibazio gutuna bidaltzeko: berbar@berbaro.us
Curriculuma aurkezteko azken eguna: **urriak 5**

www.berbaro.us

DURANGO Durangoko denda batean kutxazain apal-betetzailerak eta esperientziadun harakina behar dira. Harremanetarako: carnicasgoro@gmail.com

LAN ESKAINTZAK ETXEO LANAK

Etxea garbitzeko pertsona bat behar dugu. Pertsona bat behar dugu etxea garbitzeko eta noizean behin umeak zaintzeko, egunean ordu batzuk izango lirateke. Euskalduna izatea gustatuko litzaziguke. Tel.: 629-75 76 32 (Nagore)

LAN ESKAINTZAK PERTSONAK ZAINDU

Durango arratsaldean ume bat zaintzea. Durango ume bat zaintzeko pertsona baten bila nabil. Astelehentik eguenera, 16:30etik 20:30era. Zereginak: eskolara haurraren bila joatea, etxeko lanak egiten laguntzea, eskolaz kanpoko ekintzetara eramatea... Harremanetan jartzeko 628115542 (Rakel) zenbakira deitu.

UMEAK ZAINDU. Umeak zaintzen lan bila nabil, goizez edo arratsaldean. Mutil euskalduna eta arduratsua, arloarekin erlazioz atutako ikasketekin. Tel.: 690732699

Pertsona nagusiak zaintzen ditut. Pertsona nagusi bat zaintzeko zein etxeko lanak egiteko pertsona bat behar dugu. Gidabaimena ezinbestekoa da. Tel.: 635-73 15 73 Tel.: 650-20 60 04

Umeak zaintzeko pertsona euskaldun bat behar dut. Pertsona euskaldun bat behar dut umeak zaindu eta eskolara eramateko. Beharrezkoa da gidabaimena. Tel.: 615-70 19 08

LANA/NEGOZIOAK GAINERAKOAK

IBILGAILUAK

AUTOAK

AUTOAK SALDU

Seat Ibiza familiarra salgai. Seat Ibiza FR familiarra salgai dut. 2012ko abendukoa da eta 67.000 km ditu eginak. Informazio gehiago nahi izanez gero, deitu lasai ondorengo telefonora: 666 125 725

Altzariak

ALTZARIAK

Bulego materiala eta eskolako altzariak saltzen ditut erretiroagatik. Tel.: 635 732 562

Familia - Etxea

ETXERAKO TRESNAK/ALTZARIAK

ETXERAKO TRESNAK/ALTZARIAK SALDU

Hozkailua saltzen dut. Hozkailu erdiberria saltzen dut 50 euroren truke. Izozkailua ez dabil. Tel.: 636-04 63 18

Botikak

BARIKUA, 21 - 09:00-09:00

GAZTELUMENDI J.A. Abasolo 2 - **DURANGO**
IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - **ZORNOTZA**
09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - **ABADIÑO**

SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**

ZAPATUA, 22 - 09:00-09:00

IRIGOIEN Bixente Kapanaga 3 - **IURRETA**
IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - **ZORNOTZA**
09:00-13:30

SAGASTIZABAL Askatasun etorb. 19 - **DURANGO**

GAZTELUMENDI J.A. Abasolo 2 - **DURANGO**

DE DIEGO Intxaurren 22. - **DURANGO**

CAMPILLO Montevideo etorb. 24 - **DURANGO**

BAZAN DIAZ Urribarri 5 - **DURANGO**

UNAMUNZAGA Muruetatorre 2C - **DURANGO**

BALENCIAGA Ezkuri plaza 8 - **DURANGO**

NAVARRO Artekalea 6 - **DURANGO**

LARRAÑAGA-BALENTZIAGA Berrio-Otxoa 6 - **ELORRIO**

EGUREN, ISABEL Trañabarren 15. - **ABADIÑO**

GUTIERREZ, IBAN Txiki Otaegi 3 - **ZORNOTZA**

MELERO, ROSA MARI San Pedro 31 - **ZORNOTZA**

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - **ABADIÑO**

SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**

DOMEKA, 23 - 09:00-09:00

SAGASTIZABAL Askatasun etorb. 19 - **DURANGO**

IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - **ZORNOTZA**

09:00-22:00

SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**

ASTELEHENA, 24 - 09:00-09:00

GAZTELUMENDI J.A. Abasolo 2 - **DURANGO**

GUTIERREZ, IBAN Txiki Otaegi 3 - **ZORNOTZA**

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - **ABADIÑO**

SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**

IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - **ZORNOTZA**

MARTITZENA, 25 - 09:00-09:00

UNAMUNZAGA Muruetatorre 2C - **DURANGO**

GUTIERREZ, IBAN Txiki Otaegi 3 - **ZORNOTZA**

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - **ABADIÑO**

IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - **ZORNOTZA**

SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**

EGUAZTENA, 26 - 09:00-09:00

BALENCIAGA Ezkuri plaza 8 - **DURANGO**

GUTIERREZ, IBAN Txiki Otaegi 3 - **ZORNOTZA**

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - **ABADIÑO**

IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - **ZORNOTZA**

SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**

EGUENA, 27 - 09:00-09:00

BAZAN DIAZ URIBARRI 5 - **DURANGO**

GUTIERREZ, IBAN Txiki Otaegi 3 - **ZORNOTZA**

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - **ABADIÑO**

SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**

IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - **ZORNOTZA**

ZORIONAK@ANBOTO.ORG • EGUAZTENEN 14:00AK ARTEKO EPEA

Zorion Agurrak

GOZATU GOZOTEGI-OKINDEGIA

Ermodo, 11. DURANGO
Tel.: 946 201 663
gozatudurango@gmail.com
facebook: Gozatu Gozotegia

Hamabostean behin jasotako zorion-agurren artean **tarta bat zotz egingo dugu**. Zozketan parte hartzeko bidali kontaturako datuak zorion agurrarekin batera.



Zorionak, **Elene**, zure 4. urtebetetzean. Primeran ospatuko dogu aste-buru honetan. Segi orain arte bezain neska alaia eta zintzoa izaten. Mosu handi bat etxeko guztion partez.



Zorionak, **Paule eta Maier!** Egun aldrebesa pasau, sorgin pare!



Irailaren 15ean Kurutzia ikastolako lehenengo eta bigarren promozioiko ikasleak eta irakasleak elkartu ziren Goiurian. Une alaiak eta hunkigarriak ez ziren falta izan, eta lagunarte zoragarria sortu zen urteak eta urteak elkarrekin egon gabe izan zirenen artean.



Zorionak **Malen** gure printzesari, amaxoren eta aitaxon partez.



Zorionak, maittia! Bederatzi urte potolo egin dozuz konturatu barik. Oso neska jatorra eta alaia zara, jarraitu hola. Asko maite zaitugu etxeko guztixok, ondo ondo pasau zure egunien. Mua, mua eta mua.



Oihan Narbaiza Aldekoa berriztarak 4 urte eiten dauz irailaren 26an. Zorionak, artista. Muxu potolo bat etxekuen partez.



Zorionak, **Adhara!** Zure 32 urteez gozatzea espero dut. Nire desiorik onenak zuretzat dira. Muxu asko eta belarri tirakada handi bat zure lagun Lorenaren partez.



Zorionak Matienako lagunaren partez, **Elena**. Egun ona pasa dezazula.



Zorionak eta musu handi handi bat, **Maria**.



Zorionak **Malen** gure printzesari, amatxo eta aitaxon partez.

Eskela



Jokin Rodriguez de la Fuente
Juan Orobigoitia institutuko zuzendari ohia

Eskerrik asko, maixu!

Juan Orobigoitiaiko ikasle, irakasle, langile ta gurasoak



Durango EH Bildu osatzen dugun guztion partez, eskerrik asko urte hauetan guztietan egindako lanagatik eta zure konpromisoagatik.

Eskerrik asko, Juanito!

Durango
ehbildu

TABIRA
Eguneko zentroa eta Egoitza gerentzia berria
Intxaurren, 27 DURANGO
944 668 852 / 690 622 499

Hartu atsedena ditxo bat

www.cuidamosdetusmayores.com

- Zaintza eta zerbitzua adindunei
- Prebentzio Sanitario, Psikologiko eta Fisioterapeutiko handia
- Ile-apainketa eta podologia zerbitzua
- Aisialdia eta eguneko ibilaldiak
- Terapia okupazionala
- Aldi baterako egonaldiak
- Herriguneko instalazioak ongi komunikatuta
- Zaintzailearen atsedena
- Lan talde bikaina

“Barrutik atera ezin duzun hori azaleratzeko modua da dantza”

Irailean estreinatu berri den 'DantzanGo!' dantza lehiaketan parte hartzen du Laura Gogeaskoetxea Durangoko Boom Shock taldeagaz. Kanporaketa bi gainditzea lortu dute

AKUILUA • AITZIBER BASAURI

Psikologia ikasketak dantzagaz eta saskibaloiaz bateratzen ditu Laura Gogeaskoetxeak. Barruan duena askatzeko bidea du dantza eta, orain, telebista ezagutzeko aukera ere eman dio. Durangoko Boom Shock taldeak aurrera jarraitzen du ETBren 'DantzanGo!' lehiaketan. Boom Shock taldea hirugarren geratu zen iaz 'Vive tu sueño' dantza lehiaketako Europako finalean. Erroman lehiatuko dira 2019an. L'Atelierren sortu zen Boom Shock.

Nolatan animatu zarete estreinatu berri den 'DantzanGo!' lehiaketan parte hartzera?

Esperientzia itzela izango zelakoan animatu ginen. Taldekide eta koreografo dugun Leirek deitu zigun proposamena egiteko, eta taldeko batzuk animatu egin ginen: Leire, Uxue, Sara R., Anne Naiara, Nahia, Sara G. eta ni neu.

Nolako esperientzia ari da izaten?

Ez genekien nola joango zen dena, eta oso urduri geunden, baina oso pozik gaude, lan asko eskatzen duen arren. Astean birritan joaten gara grabatzera (martitzen eta barikuetan) eta egun osoa egiten dugu han. Kanporaketa gaindituz gero, eguaztenean ematen digute hurrengo abestia eta eguenerako koreografia guztia prest euki behar dugu.

Telebistaren munduak harritu zaitu?

Egia esan, bai. Telebistan ikusten denak ez du zerikusirik atzean dagoenagaz. Ordu bi ere irauten

ez duen saioa ikusten dugu eguaztentean, eta atzean dagoen lana izugarria da. Grabazioetatik kanpo ere lehiaketarako lan piloa egiten dugu, L'Atelierren ere bai.

Noiz hasi zinen dantzan?

Sei-zazpi urtegeaz hasiko nintzen, eta beste horrenbeste daramatzat Boom Shock taldean. Betidanik gustatu zait dantza. Saskibaloian jokatzen hasi nintzenean utzi nuen, baina segituan bueltatu nintzen. Biak egiten ditut orain.

Bateragarriak dira?

Uf! Batzuetan ez.

Ordu asko eskatzen dizkizu dantzak?

Bai. Egunean ordu bi gutxienez bai. Hori *DantzanGo!* lehiaketaz aparte. Grabazio egunak hor daude eta lehiaketan jarraitzeko lau entsegu behar dira gutxienez. Horretaz aparte, beste saio batzuk ere egiten ditugu, teknika berriak ikasteko: hip-hop, funkya... Boom Shock-en dantza garaikidea lantzen dugu batez ere; jazz eta lirikoa ere bai. Horiek dira niri gehien gustatzen zaizkidanak.

Lehiaketa irabaziz gero, Goazen telesaillean parte hartuko duzue. Ikusten duzu zure burua aktore lanetan?

Ez dakit! Oraindik ez dakigu irabazterik izango dugun eta dantzan dut burua jarrita, baina, batek daki! Manuela lehengusina txikia oso po-

zik dago, igual Goazenen agertuko naizelako (barrez). Oso pozik dago telebistan agertzen naizelako.

Jende ospetsuagaz lan egiten duzue. Nolako da hori?

Ylenia Bagliato eta Miren Arrietagaz egin dugu guk lan, eta oso pozik gaude. Lan asko egiten dute biek eta Durangora ere etorri izan dira gugaz aritzeko. Aholkuak eman dizkigute, ohartu gaitezen telebista saio batean gaudela. Lehenengotan nola jarri ere ez genekien.

Ikusten duzu zure burua finalean?

Bai! Norbere burua heldu gura duzun toki horretan ikusi ezean, ez zara inoiz helduko. Gainera, lan asko egingo dugu horretarako.

Zer du berezia Boom Shock taldeak?

Igual, eszenatokian jartzen dugun jarrerak, dugun presentziak. Gainera, beste taldeek ere egingo dute, baina lan asko egiten dugu taldean. Horrez gain, oso ondo konpontzen gara gure artean, eta hori asko igartzen da dantzatzerako orduan.

Zer da zuretzat dantza?

Barrutik atera ezin duzun hori azaleratzeko modua da dantza. Barrera husteko modua da, ihesbide bat. Ez dakit nola joango den nire bizitza, baina, gaur egun, ez dut nire bizitza dantza egin barik ulertzen.

Ogibide izatea gura zenuke?

Bai, baina oso zaila da dantzatik bizitzea. Zerbait berezia behar da. Are gehiago emakumea izanda. Mutil bat dantzan ikustea deigarriagoa egiten da, gutxiago direlako beharbada. Dantzaren mundua oso gogorra da, oso zorrotza. Hala ere,

dantzagaz lotutako zerbaitetan egin gura nuke lan: konpainia batean, eskolak ematen, abeslari baten dantzari lez... Psikologia eta dantza uztartzea, berriz, goren litzateke.

Lau hortza

Amaia Ugalde Begoña Kazetaria



“Amesetan moduen”

Amesetan moduen. Gure etxean esaldi hori sarritan entzun dut egun arraro horietako baten; adibidez, oporretan kanpoan ibili eta gero etxera bueltatzerakoan. Goizean paraje haietan genbiltzan oraindik, eta gaur hemen gaude, betiko lekuan. Hau gertatu da? Ezagutzen duzue sentsazioa, ezta? Ezusteko bat ere izan daiteke, espero ez genuen zerbait gure egunerokoan. Abentura bat izan daiteke, edo istripu bat.

Gurean, joan den domekan sustoa izan genuen aita mendian jausi zenean. Ederto dago bera -gogorra da, gero!-, baina egun hura benetan ametsetakoa izan zen. Abentura ere bai, gaurko begietatik ikusita, helikopteroan eroan behar izan zuten-eta Galdakaora. Hori ere ikasi genuen: horrelako istripuren baten buruan kolperen bat hartuz gero, ez da mugitzea komeni, eta protokoloa aktibatzen da menditik helikopteroan ospitalera eroateko.

Zorionez, ospitalean probak egin, dena ondo zegoela ikusi, eta iluntzean etxera bueltatu ginen denok. Kotxean bueltan ginela, zelan zegoen galdetu eta “amesetan moduen” erantzuten zuen aitak.

Bada, amets hori ondo amaitu izana inguruko jende pilo bati zor diogu: Besaide Egunean itzela izan zen aitak eta ingurukook jaso genuen laguntasuna eta babesa. Erdella mendizale taldeko lagunak, Gurutze Gorrikoak, osasungintzan dabiltzan herrikideak, gertuko lagunak, ezagunak, erreskate taldeko ertzainak, medikuak... Denon partez, eskerrak eman gura dizkizuet zuen ardura eta laguntasunagatik. Horrelako egunen ostean elkartasunez betetako herria ez da ametsa, errealitatea baizik. Eskerrik asko!



Laura Gogeaskoetxea Zugaza
Boom Shock dantza taldeko kidea
Durango | 1999

ALKIMAX

Alquilamos soluciones

BERRIZ Eitua industriagunea, 71C · Tel.: 946 824 550

GERNIKA Goiko Ibarra, 26 · Tel.: 946 271 310

www.alkimax.net

Deskargarako Dumperra
Deskargak altueran

Kontainerretan deskarga egiteko Dumper beldarra

Dumper beldarra 500 kg